

1994ko abenduak 23

258. zenb.




RRASATE

**Gabon
eta
Berri On**



Zure zerbitzu informatikoa



- Ekipo informatikoen salmenta, mantenimendu eta konponketa.
- Sistema informatikoen aholkularitza.
- Material informatikoa (Disketteak, inpresoraren zintak...).
- Sare informatikoak.
- Salmenta punturako terminala. (T.P.V.).



771372

AIDE

Informatika Basabe poligonoa, FO-9. 20550 ARETXABALETA

ZORIONAK!



Ipek
Denda

Iturriotz, 19

Berez motelak?

Duela gutxi egunkarietan irakurri genuen inteligentzia kozienteaz Ipar Ameriketara Murray eta Herrnstein-ek egindako ikerketa bateko informazioa. Haien datuen arabera, biztanlego beltzaren inteligentzia kozientea %85eko omen da eta gutxiagokoa oraindik latino eta txikanoena. Zuriena berriz %100ekoa batekoz beste.

Beraz, naturari legokioke zuriak jaun eta jabe izatea hango gizartean, beltzek maila sozial apalagoa izatea eta latino eta txikanoen atzerapen nabarmena. Ikerlari hauek diotenez, gurasoengandik jasotako herentzia genetikoak ematen du inteligentzi maila. Hau horrela izanik, alperrikako omen dira beltz eta latinoen ongizatea lortzeko ahaltegin eta laguntza guztiak, gehiagora heltzeko adimenik ez dutelako.

Antzeko gauzak entzunak ditugu lehen ere, maila txikiagoan bada ere. Gipuzkoako herri batetako monjen eskolan inteligentzia kozientea neurtzeko testak egitea pentsatu zuten bertako ikasle ziren neskei. Emaitzetan atera zen bertako ikasleetan %60 ez zirela normaltasunera heltzen eta hau zela eta guztiaren ahotsa egon zen kontu hau eta esames ugari sortu zituen luzaro herrian, eskola eta ikasleen kaltetan.

Badirudi ezintasun genetikoaren harlauza botatzen dutela gainera bi gertakizun hauek.

Bestelakoak dira ordea, beste ikasketak askoren emaitzak. Adibidez, Klineberg-ek azaldu zuen hiri haundietako haurren inteligentzia maila antzekoa zela, arraza ezberdinekoak izanda ere. Eta bestaldetik, herrialde desberdinetan baserri giroan bizi ziren hau-

ren inteligentzia ere antzekoa zela.

Eskoletan ematen den porrota dela eta egindako ikerketen ondoren, hezkuntza munduan gaur egun onartua dago eskolak ezik familiak eta inguruak duten eragin itzela haurraren garapen eta ikasketetan. Beraz, derri-gorrezkoa jotzen da eskoletan egin beharreko aldaketaz gain, eskolaz kanpoko ingurune hori aldatzea, haurren garapena lortu eta ikasketak burutzeko.


Jakina da ikusten duena ikasten duela haurrak eta esperientzia desberdinak bizi dituela familia batetik bestera. Eskolan baloratzen diren arloak (hizkera, harremanak...) bizi dituzten familietako haurrak asko puntuatuko dute ebaluaketetan, familian ikasari esker. Gutxi ordea, beste giro batean bizi diren haurrak, euren hizkeraren aberastasuna lehenengoena bezain handia izan arren, argota dela jotzen delako.

Lehen aipatutako eskolako testuari buruz, argitzekoa da gaztelarazkoa izan zela testa, euskaldunak

baziren ere ia neskak guztiak eta euren zat guztiz ezezagunak ziren egoerak planteatzen zitzaizkiela galdekizunean zehar. Zein izango ote ziren emaitzak testa euskaraz izan balitz, ezaguna zuten inguruneari zegozkion galderekin?

Hau kontutan hartuta, jakin beharko litzateke Ipar Ameriketara egindako ikerketan zer neurtu duten: aztertutako jendeak duen adimena edo zuten bizimodurako egokitapena.

RUFINA OLASAGASTI



ARRASATEN

POXPOLIN

Umeentzako oinetakoak eta berezitasunak

Zerkaosteta, 15
Tfnoa: 79 61 13

Memesa

79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaureritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Ikeme Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itxaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Makelazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Hantiz Larriaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Laguntzaileak:** 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier Ozaeta.

EAETik EGRI erantzunez

ARRASATE PRESS-eko abenduko zenbaki batean EGI jeltkideen gazte erakundeak argitaratu zuen gutunean Ezker Abertzaleari (eta maltzurki gure Alderdiari, hots EAE-ANV-ANBri) eginako erasoari erantzun nahi genioke lerro hauen bidez.

Egia esanda, zaila da Jeltkide gaztetxoek azalduko anabasa sasi ideologiko-demagogikoari erantzuten nondik hasi asmatzea, baina nire talde politikoari dagokion zatitik hasiko naiz.

Albertian biltzen diren gudariak ez dira HBren eskutik biltzen, EAE alderdi historikoaren eskutik baizik. Hori bai, H. B. eta Iparraldeko ezker abertzalearen laguntzaz. Harritzen nau benetan jakinduria historikoaz hainbeste harropuzten diren EGiko hauek Eusko Abertzale Ekintza zer den ez jakiteak. Beste aldetik ulertzekoa da. PNV-k beti ikuspegi oso berekoa izan baitu euskaldun edo abertzale kutsua duen edozein gauzatarako eta ez zuen 30. onartzen ezta gaur ere ezkerreko abertzaletasuna.

Albertian biltzen diren EAeko eta beste erakundetako gudariak badakite historiaz anitz eta historia horren barruan dago nola EAeko gudari askok Santoñako entzerronatik ihes egin eta gero borroka jarraitu zuten Asturiasen eta Cantabrian edota Frantzian eta Iparraldean.

Beste aldetik, zinez esaten dizuet ezer gutxi ulertu dudala maiuskula, minuskula, txibatu eta gudariekin egiten duten nahasketaz. Nire aldetik gauza bakarra esango diet. Haien alderdiko burukideek Franco eta Errepublikaren arteko bitxilorea mareatzen zuten bitartean, EAeko lehendabiziko gudariak, anarkistak eta komunistekin batera erreketei aurre egiten zien Gipuzkoako mendietan. Horrek, hala ere, ez

dio kentzen gero PNVko gudariak egindako ekintzei balorea.

Horregatik ez nuen espero hain erraz ahastea Frankismoan eta geroztik ere ETAko ekintzaile ugariak haien burua nahiago izan dutela beste bat egitea edo armak eskuetan erortzea etsaiaren eskuetan erortzea baino. Zerrenda luzea da eta ez dut nahi izenak hemen astintzea haiek Unzurrunzagarekin egiten duten bezala. Galdera bat bakarrik.

Unzurrunzagak, Goardia Zibilaren eskuetan erori baino lehen bere buruaz beste egitea nahiago izan zuenak, zer pentsatuko ote zuen ikusiko balu bere gaur egungo alderdikideak euskal borrokalari abertzaleak Goardia Zibileraren entregatzen? Nahiz eta haiekin ados ez egon espainiar gartzetara bidaltzen? Haien kontra jotzeko haiekin informazioa konpartitzen?

Bukatzeke gogoratzen dizuet euskal presoek gose grebak zoritxarrez zazpi egun baino luzeagoak izaten direla eta GRAPO erakundeko euskal borrokalari bat, Crespo abizenekoa, haietako batean hil zela. Badakit esango duzuela Crespo hori "Komunista espainiarra" zela. Nik dakidanez behintzat bere ideariumean gure herrirako autodeterminazio eskubidea ere aldarrikatzen zuen euskal borrokalari bat zen. Eta ez da gutxi zuen oraingo lagun minak eta itunkideak diren PSOeko, UAko edo PPkoekin konparatuz.

CHARO GUERRERO

ARRASATEKO

EAE-ANV-ANBKO KIDEA

"Ruandan ere badira gabonak"

Ruanda erabat suntsiturik dago, bere lurrak pertsonak eta baita etxeak ere. Edozein ikuspegiatik begiraturik, dena hondamena besterik ez da.

1.000.000 bat hildako,

2.000.000 pertsona baino errefuxiatu gehiago Ruandako gatazka zirgitararen balantzea.

Zenbait erakunde, Ruanda eta Zaireren arteko mugetan dauden errefuxiatu zelaietara hurbildu dira bere laguntza eskeintzera, bertan 1.200.000 mila pertsona hiltzen baita koleraz eta gosez.

Gerra krudel honen eragileek ez dute kontutan hartu Ruandako haur eta pertsona nagusien oinaze eta sufrimendua, ez zaie ezer ere axola haur umezurtzen negarra, eze-rezari begira dauden gazteen begirada eta zaharren bakardadea...

Dolarrak, domeinu eta armen salmenta besterik ez zaie axola.

Beste pertsona batzuk ere badaude Manuel Segundo Aizpuru, Leonardo Esnaola bezelakoak... Ruandaren alde lanean ari direnak.

Zairera aldegin daude nahi dutela bueltatu nahi badakigu, posible diren zenbait errepresalientz beldurra baitute. Ruandako Eliza katolikoaren martiri kopurua zabaldu egin da: zenbait laiko, hiru apezpiku eta ehundaka erlijioso.

Zer egin dezakegu egoera triste honen aurrean? Kontzientzia hartu..., Janari, erropa bidali. Zenbait pertsona gonbidatu gurekin Gabonak pasa ditzaten... daukaguna banatu.

Guk, "La Merced" ikastetxeko ikasleok solidaritate kanpaina bat egin dugu:

"RUANDAN ERE BADIARA GABONAK".

Honetan, banaka batzuen gosea gutxiagotzea gustatuko litzaiguke, besterik ez bada, egun batzuetarako behintzat.

1.000 pezeta 10 egun goserik gabe baitira eta gehiegikeria alde batetara uztearekin nahikoa da...

SOLIDARIOAK IZAN GAITEZEN!!!

LA MERCED IKASTETXEA

8. MAILAKO IKASLEAK

Jose Mari Astigarragari erantzunez:

Abenduaren 2ko Arrasate Presseko iritzi sailean "Zer diozu pakeaz?" galderari parrokoak ematen dion erantzunak mindu egin nau. Artikuluan ezker abertzalea eta bere zenbait oinarri (autodeterminazio eskubidea,...) gogor erasotzen ditu.

* Espainiako Konstituzioaren 1. art.: "La soberanía reside en el pueblo español del que emanan todos los poderes".

* Esp. Konst. 8.art.: "Las Fuerzas Armadas tienen la misión de garantizar la soberanía y la independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional".

Autodeterminazioa: Munduko herri guztiek beren etorkizuna erabakitzeke duten eskubidea.

Ez al da argi ikusten nork eta nola ukatzen digun autodeterminazioaren eskubide fundamentalak? Nor da hemen biolentzia eta biolentziaren sortzailea? Non dago biolentziaren zergatia?

Euskal presoek egoera: torturatuak, sakabanatuak, isolatuak,... Intsumituen egoera, etab, erantzun demokratiko eta giza legezkoak al dira? Zergatik ez dituz parrokoak guzti hauek eta beste asko salatzen?

Astigarragaren arazoaren arrazionalizazio nahia, herri honek bizi duen gatazka ukatzea eta jendea nahastu nahi izatea al da? Munduan zehar gatazka guztiak elkarriketa eta negoziazioaren bidez konpontzen direnean, Parrokoa, berriz, gure herrirako irtenbide polizialaren alde al dago?

Penagarria da, Arrasaten parroko bat abertzalea izateagatik faszistek fusilatua izana eta oraingoak abertzaleak honela tratatzea.

Arrasatear guztion parrokoa zara edo boterearen interesetara makurtzen direnena bakarrik?


BERONIKA GARAI

Zenbat diru jokatu duzu loterian?



Angelita Arozena
Etxekoandrea
(63 urte)

Aurten 6.000 pta, gehiago ez. Herrian eta kanpoan erosi dut loteria. Partizipazioak ere egin izan ditut, baina aurten ez.



Gregorio Bolinaga
Jubilatua
(66 urte)

Loterian, gutxi. Iaz xentimorik ere ez nuen jokatu baina aurten lagunak erosi duela eta, nik ere 1.000 pta gastatu dut. Loterian ez daukat federik.



Begoña Payueta
Auzo laguneko langilea
(38 urte)

Dexente, baina zehazki ez dakit zenbat. Ilobek eta bidaltzen didate, Bartzelonatik eta Bilbotik.



Tomas Fernandez
Jubilatua
(64 urte)

Nik ezer ere ez baina nire emazteak, asko. Doan tokira doala, beti erosten du loteria.




M^a Angeles Fuentes
Etxekoandrea
(37 urte)

Senarra arduratzen da horretaz, baina ez du diru larregirik gastatzen.



Rafael Carmona
Jubilatua
(57 urte)

Zubian Cordobara joan ginen eta bueltan gentozela poltsa lapurtu ziguten. Jakina, erositako loteria ere ostu ziguten. Eskerrak ez ditudan zenbakiak gogoratzen!



Andres Gil
Gelmako langilea
(46 urte)

Gabonetakoa denez, 25.000 pta gutxigora behera. Gehienbat herrian erosten dut, hemen tokatzen bada niri ere toka dakidan.



Ima Martin
Langabetua
(22 urte)

Gutxi. 1.500 pta edo 2.000 gastatu dut, ez daukat horretarako dirurik. Gastu handia da loteria erostea.

Arreta
haundiko
sukaldea

Garagartza auzoa

UGARAN
jatetxea


Tfnoa: 79 76 58

Giro
abegikorra

ARRASATE

III. MEKA MARRAZKI LEHIAKETA

“Nik, haundi egiten naizenean, ... izan nahi dut”



Badakizu? Pentsa ezazu. 6 eta 14 urte bitartean badaukazu marraz ezazu MEKarentzat handi egitean izan nahi duzuna: astronauta, idazlea, ekologista, suhiltzailea, ...; denak balio du. Margo-zorro eta liburu-sorta bikainak irabaz ditzakezu. Hartzazu parte!

Jaso itzazu marrazteko txartela eta oinarriak zure MEKAn. Zure marrazkia 1995eko urtarrilean 5a baino lehen entregatu behar duzu. Parte hartzeagatik, besterik gabe, MEKak plumier bat oparituko dizu koloretako arkatzekin. Zorte on, artista!



RENAULT



MEKA TAILERRAK S.,A.

“1941eko otsailaren 5ean hain zuzen jaitsi zen On Jose Maria Arizmendiarieta trenetik Arrasateko geltokian, kartoizko maleta esku batean, esku-kartera bestean eta orduko apaiz bati zegokion itxurarekin, alegia, apaiz-kapa, sotana, teilazko kapela, etabar. Ah! Eta lan egiteko izugarritzko gogo eta kapazitatea. (...)

(1976ko azaroaren 29an hil aurretik) honako hauek izan ziren bere azken hitzak: ‘Atzera begiratzea Jainkoari irain egitea da; aurrera begiratu behar da beti’.

Bere garaikideek diotenez, gizon on hutsa zen Arizmendiarieta, solaskide atsegina, gizarteko bizitza atsegin zuena, baina baita ere akzio-gizona, sormenerako izugarritzko trebetasuna zeukana. Berak bultzaturik elkarte, erakunde, eskola eta espresak jarrera horren lekuko dira. (...)

Javier Marcosek 94-12-1

egin

“‘Jartzazu, jarriozu... eta gero zakorrontzira, mesedez!’ Zertaz doan gaurkoa? Gipuzkoakoa Aretxabaleta gainean bada paraje zoragarri bat: Urkuluko urtegiaren ingurua. Paraje ezin hobea egunez zangoak mugitzeko; eta gauez ere bai gorputza astintzeko. (...)

Lehentasunen artean ere, preserbatiboa erabiltzea izango da nagusi. Baina erabili eta plast! bertan behera uzten dutenek, larrua jotzen jakiteaz gain, larrua sendoegia ere badutela erakusten dute garbi”.

Iñaki Mendigurenek

Egunkaria

“ATBko kasuan ilusioak eta gogoak ordezkutzen dituzte momentuko gabeziak. Ilusioa da, gure kasuan, profesionaltasunaren giltza. (...)

Bestetik, babes ekonomikoa izatea erronka handia da, dirulaguntzak publizitateaz osatzen direlako. Bi eremuetan egingo diren saioek bermatuko dute etorkizuna”.

Lutxi Arregik 94-12-4

ARGIA

Zein balorazio egingo zenuke AEDko lehiaketaren inguruan?

Partaidetza urtetik urtera handituz doa, kopuruari dagokionez iaz baino lan gehiago aurkeztu da aurten. Lehiaketa urtetik urtera indarra hartuz doala erakusten du horrek. Ikasle askok parte hartu duela ikusirik, gainera, eskoletako lana eskertzeko dela esan behar da.

Orokorrean aurtengo lehiaketaren maila ona izan da eta lanak euskara txukunean aurkeztu dira. Horren inguruan, B ereduko haurren euskara

maila azpimarratuko nuke, kasu batzuetan oso euskara maila ona erakutsi dute eta. Hala ere, atal batzutan hutsuneak izan direla aipatu behar dugu. Bertso paperetan, adibidez, ez dugu lehen saririk eman, akzesitak bakarrik eman ditugu eta argazki multzorik onenak eta diapositiba multzorik onenak ere ez dute saridunik izan. Bestalde, Jokin Zaitegi itzulpenetan lan gutxi aurkeztu da baina nahiko gai zaila jarri genuenez, horren errua gurea izan dela esan beharra dago. Hutsuneez gain, bitxikeriak ere izan dira. Oñatiarrek, esatebaterako, poesian sari ugari lortu dute eta bergararrek, ostera, ipuinetan erakutsi dute abilitadea.

Gure ustez, AEDko lehiaketan parte hartu ondoren jendea beste batzutan parte hartzera animatzen da eta zelan ez, lanak argitaratzeak ere asko laguntzen du. Lehiaketak gainera, literatur tailerra sortzeko dugun asmoari bultzadaxoa eman dio, tailer hori sortzea literaturaren inguruan emango dugun beste urrats bat izango delarik. Horregatik, saria jaso dutenak edo literatur mundua atsegin dutenak animatu nahi nituzke, las-ter hasiko dugun literatur tailerren parte hartzera.



Esther Apaolaza
AEDko dinamizatzailea

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA
UNITATEA

Garciandia Doktorea

PATOLOGIA DIGESTIBOEN
UNITATEA

Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA
GINEKOLOGIA UNITATEA
Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA
UNITATEA
J.R. Fernandez

ZIRUGIA UNITATEA
J.R. Fernandez

Ramon María Lili, 2

Tfnoa: 76 59 39/72

Faxa: 76 25 72

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatoroa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron.....	77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 23	Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.
Larunbata 24	Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.
Igandea 25	Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola
Astelehena 26	Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.
Asteartea 27	Egunez eta gauzez: Amezua. Sta. Marina.
Asteazkena 28	Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.
Osteguna 29	Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

23 OSTIRALA

ZINEA

"Stargate" 7etan eta 10etan.

LIBURU ETA DISKA AZOKA

San Frantziskon, Txatxilipurdik antolatuta. Ordeutgia: goizeko 11etatik 2etara eta arratsalde 5etatik 9ak arte.

IPUIN KONTALARIA

Pello Añorga ipuin kontalaria Eskoriatzako Kultur Etxean gaueko 10etan.

HECTOR BERLIOZ-en "TE DEUM"

Te Deum obra eskainiko dute Gorosari abesbatzak, Bergarako Orfeoia, Goiargi Abesbatzak eta Goikobalu abesbatzak, Hendaiako Orkestra sinfonikoaren laguntzaz. Amaia Antzokian arratsaldeko 8.30etan. Sarrera 1.500 pta.

EKITALDIA

Felix Likiniano iraultzaile arrasatearraren inguruan. Pilar Iparragirrenen "Felix Likiniano: ezina ekinez egina" liburuaren aurkezpena eta Manuel Chiapuso, Likinianoaren adiskidearen hitzaldia. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

BIZITZAREN ALDEKO EKINTZA

Bizitzaren aldeko gazteek antolatuta bizitzaren aldeko ekintza Urribarriko Itxaropenaren Andra Mari Parrokian. Meza eta kontzertu batek osatuko dute emandaldia, arratsaldeko 6etan.

KONTZERTUA

Aretxabaletako akordeoi orkestra txikiak kontzertua eskainiko du Parrokian arratsaldeko 8etan.

24 LARUNBATA

ZINEA

"Stargate" 5etan eta 7.30etan.

LIBURU ETA DISKA AZOKA

San Frantziskon, Txatxilipurdik antolatuta.

TXORONPIO ETA OLENTZERO

Txoronpio goizeko 11etan eta Olentzero arratsaldeko 6etan.

OLENTZERO

Olentzero Ortzadar taldearen laguntzarekin arratsaldeko 6.30etan Aretxabaletan.

25 IGANDEA

ZINEA

"Los peores años de nuestra vida" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

ERAKUSKETA

"Made in Arrasate. Museo industrial sortzeko bidean". Abenduaren 21ean inauguratu zuten eta urtarrilaren 23ra arte egongo da zabalik Monterronen. Ordeutgia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jai egunetan 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.



TXORONPIO ETA OLENTZERO

Abenduaren 24an Txoronpio eta Olentzero izango ditugu Arrasateko kaleetan zehar. Txoronpio goizeko 11etan etorriko zaigu eta Olentzero arratsaldeko 6.30etan.

26 ASTELEHENA**ZINEA**

"Los peores años de nuestra vida" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

GAZTE TAILERRAK

Abenduaren 26, 27, 28, 29 eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an Gazte Tailerrak Santamainan eta Uribarri Erguinen: ordutegia arratsaldeko 4etatik 7etara. Txatxilipurdik antolatuta.

27 ASTEARTEA**ZINEA**

"Los peores años de nuestra vida" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

JAZZ KONTZERTUA

Jazz kontzertua Bergarako Pol-Polen, gaueko 10.30etan.

UMEENTZAKO TRENA

Atxabaltako kaleetan zehar umeentzako tren. Goizez 10etatik ordubatera eta arratsaldez 4etatik 7etara.

28 ASTEAZKENA**DIPOSITIBA EMANALDIA**

"Pakistan" diapositiba emanaldia, Bergarako Uneden, arratsaldeko 8etan. Emalea: Jon Lazkao.

29 OSTEGUNA**ZINEA**

"Riff-Riff" gaueko 9.30etan Amaia Antzokian. Sarrera 300 pezeta, gazte txartela-rekin 250 pta.

GABONETAKO PARKEA


Aretxabaletako Iturrigorri frontoian gabonetako parkea. Goizez 10etatik 12.30etara eta arratsaldez 4etatik 7.30etara.

TXIKILANDIA

Urtarrilaren lehen astean Txikilandia izango du Arrasaten Txatxilipurdik antolatuta.

KIROL EKINTZAK

Badminton ikastaroa, Gabonetako lehen gomazko paleta txapelketa eta Gabonetako lehen Squash txapelketa Musakolako kiroldegian. Abenduaren 19tik 31ra. Aukeak antolatuta.

**FAUNA TXIKI BAT BERTSO BERRIETAN**

Aitor eta Jon Sarasua bertsotan eta Jose Luis Lekunberri pianoan. Abenduaren 30ean, Bergarako Zabalotegi aretoan gaueko 10.30etan.

URAZPIKO GIMNASIA

Urtarrilaren 3 eta 4ean Urazpiko Gimnasiaren erakusketa egongo da ikusgai Aretxabaletako Kirol-etxean. Ordutegia goizez 10.30etatik ordubatera eta arratsaldez 4.30etatik 5ak arte. Eguna eta ordua aukeratzeko 796461 zenbakira dei egin eta Pedrogatik galdetu. Sarrera eta gimnasia sesioa dohainik izango dira.

BIDEO INFORMATIBOA

Parrokian egin diren obrak azaltzen dituen bideo informatiboa ikusgai dago Elkoro dendan.

**MALTZAGA URBINA ERAKUSKETA**

Maltzaga Urbina erakusketa ibiltaria zabalik urtarrilaren bata arte Lau Biden.



* ASUN IBABE

Euskadiko III. Jardunaldi Feministak “Mugarik ez emakumeontzat”

Jardunaldiotan 1.500 bat emakumek hartu dute parte eta bertan mugimendu feministaren ugaritasun eta aniztasuna jarri da nabarian.

Borroka feministaren 20 urteetan, lege, gizarte eta lanari dagokienez bilakaera nabarmena izan da.

Emakumea izugarri sartu da soldatapeko lan-munduan, baina hala eta guztiz ere, diskriminazioa jasaten jarraitzen du: “Soldatapeko eskulanaren %23 izanik, gizonen baino %22 gutxiago irabazten dugu”. Gehienak zainketa eta zerbitzuen sektoreetan pilatuta gaude; etxeoandreek aitortzen ez zaion ordu askotako lana egiten dute; emakume asko legez kanpoko lanak egin beharrean gaude eta etxeo enplegatuek ere Langileen Araubide Orokorra kontuan hartu gabe diskriminazio zehatza jasaten dute.

Jardunaldiotan egungo krisi ekonomikoari eta bertatik irteerako moduari buruz ere eztabaidatu da eta horren irtenbidetzat lana, bai soldatapekoa bai etxekoa, banatzea proposatu da. Horretarako gizon eta emakumeen behar eta denborak kontuan hartuko dituen gizarte-plangintza egin behar da.

Hona hemen landu diren gaietako batzuk: populazio-politika, sexu-agresioak, komisaldegietan emakumeek jasaten dituzten tortura bereziak, Martutenen preso dauden emakumeekin egiten ari den lana, hezkidetzak, hiesak...

Jardunaldietako gai garrantzitsuetako bat boterea izan da. Adostasuna erabitekoa izan da bizitza sozialeko esparruetan, erakunde-en politika-munduan ere bai, emakumeak gero eta parte-

hartze handiagoa izateari dagokionez eta baita mugimendu feministaren lanaren garrantzi eta emakume-taldeak bultzatzeari dagokionez ere.

Mugimendu feministari eta bere lan-perspektibei buruz ere aniztasuna nabarinarria izan da bai ikuspegi-aldetik bai emakumeen egoeraren aldetik. Dena dela, aniztasunagatik atzera egin gabe akordioetara heltzeko aukerarik badela adostu da. Gure erronka aniztasunetik abiatuta mugimendua indartzen jakitean datza.

Feminista gazteek agertu dutenez, mugimendu feminista “historikoaren” eta emakume gazteen taldeen artean zubi bat eratu beharra dago. Horrela bada, martxotik aurrera Euskadiko emakume gazteen Jardunaldiak egiteko koordinazio-lanera-ko erabakia hartu da.

**ARRASATEKO EMAKUMEEN
ASANBLADA.**

USTEAK USTE

“HABEMUS GOBERNU”

Azkenean gauzatu da gobernua. Hainbeste gora behera, oraintxe bai, oraintxe ez, bat prest dagoela, bestea ezetz, itxura hutsa izan ote da?

Baina tira, nola pentsa dezakegu horrelakorik? Izan ere, hain dira desberdinak hiru alderdiok, hain planteamendu kontrajarriak dauzkate zenbait gairen inguruan! Bakoitzak besteen programa aztertu eta zer onartzeko prest dagoen eta zer ez, eta zertan, aldi berean, amore emateko prest dagoen eta zertan ez, eta gero indarrak neurtu eta zenbateraino eutsi diezaiokeen bakoitzak bereari; egia esan guzti horrek nahiko denbora eta mila bilera eskatzen du, batez ere alderdikeriak alde batera utzi eta ahalik eta egokien gobernatzeko ahaleginak egiten ari direla kontutan hartzen badugu. Bai, guzti hori erantzunkizun handiko lana da, eta ez da harritzekoa eguna joan eta eguna etorri, bilera joan eta bilera etorri, azalpen publikoak han, azalpen publikoak hemen, alderdi mailako batzarrak, bozketak... denen beharra izatea!

Gu, kaleko gizon/emakume xumeak, ez gara ohartzeko hauek egindako lanaz, botatako izerdiaz, sartutako orduaz... zeredozetan ari direla bai, baina tira, gehiagorik gabe. Eta eurak ari eta ari, jo ta ke!

Baina azkenean hara hor! Hainbeste lanek eman du bere emaitza, azkenean “habemus gobernu” asmatu dute nola banatu pastela, edo turroia esan behar? Baten batek esango du: eta programa eta guzti hori? Momentuz kajoiara, hurrengo hauteskundeetan hautsaku kendu, pixkat apaindu eta baliozgarria izan daiteke eta.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretako fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ALTAMIRA KLINIKA

Mikrotxip-aren
betebeharreko
kanpaina
abendua 31ra arte

J. L. Iñarra, 24 Behea
Tf: 79 74 89

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

BASABE JATETXEA


Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Migen eguna

Corazón de Encina elkarteak antolatuta, Migen eguna ospatu zen igandean San Andres auzoan. Migak ogi lehorrez egiten dira eta berakazopa antzeko jakia da. Domekako ekintzaren helburua, Estremadurako jaki tipiko hori ezagutzera ematea zen baina horrekin batera mortzilak eta txorixoak ere banatu zituzten. Migeak arrakasta handia izan zuten eta 600 platerkada inguru jan ziren.



Hitzarmenak 14 partaide gehiago

Sei enpresak, zazpi kultur elkarteak eta kirol elkarte batek sinatu zuten asteartean Euskararen erabilpenaren aldeko hitzarmena. Elkarrekin honakoak dira: Langai elkarteak, Dragoi Bideo-produkzioak, Galartza kontenedoreak, Kapirixo elkarteak, Txatxilipurdi Haur eta gazte ekintzak, Arrasateko Yoga elkarteak, Elkarrri, Gizaizpi alai aisialdi taldea, Sortu Informatika, Mugarri Autoak, Arrasateko Gaiteroak, Erraldoi eta Kili-kien konpartsa, Deba Garaiko Zikloturistak eta Asmobi altzari enpresa. Astearteko ekitaldiarekin batera, hitzarmena jarri zenetik egin diren neurketak eman ziren ezagutzera. Neurketa horien arabera, sinatzaileen jardunean %91 euskaraz da eta %6a bakarrik gazteleraz.

Diploma banaketa

Oñatiko Ostalaritza Eskolak, lehenengo promozioiko ikasleei diplomak banatu zizkien astelehenean. Guztira hogeitaz hamar ikasle izan ziren hiru urteko ikasketen ondoren ostalaritza eskolako eta beste ordezkari batzuen eskutik diploma jaso zutenak. Ostalaritza eta zerbitzuen munduan profesionalen beharra zegoela ikusirik, 91ko irailan Oñatiko goimailako ostalaritza eskola sortu zen Eskola Politeknikoaren babespean. Lehen ikasturtean 50 ikasle matrikulatu ziren Ostalaritzan eta iaizko ikasturtean, berriz, 334 ikasle eman zuten izena.

Olentzero nonahi

Aste honetan zehar, olentzeroren bisita izan dute Arrasateko ikasleek. Asteartean Erguingo eskolan izan zen eta hurrengo egunean La Mercek, San Viator Txiki, Uribarriko ikastola eta San Andreseko herri eskolak bisitatu zituen. Umek Olentzerorekin hitzegiteko aukera izan zuten eta kantatu ondoren, eskolan prestatutako eskutitza ere eman zizkioten.



Erakusketaren inaugurazioa

Asteazken arratsaldean ireki zen "Made In Arrasate", museo industrialia sortzeko bidean antolatu den erakusketa. Inaugurazio ekitaldian Udaletxeko eta kultur munduko hainbat arduradun izan ziren. Hantxe zen Bixente Barandiaran ere, inguruan geratzen den errementari bakarra eta berari omenaldia egin zioten. Barandiarani plaka bat eta errementari dantzaren letra idatzia duen diploma eman zioten.

Erakusketa Monterronen dago ikusgai eta bertan aspaldiko dokumentuak, argazkiak, katalogoak eta tresnak ikus daitezke besteak beste.

Protesta

Debasak, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek eraturako erakunde publikoak, antolatutako erakusketa dela eta, Herri Batasunak deituta protesta ekintza burutu zen astelehenean Lau Bideko plazan. HBren ustez autopista ez da bailara honek behar duena eta gainera, IGPetako emaitza kontutan izan beharko litzateke. Debasak jarritako erakusketan Maltzaga-Urbina ardatzean zelako bidesarea egingo den azaltzen da.

Dantza txapelketak


Santamasesen barruan, domeka eguerdian 4. binakako arin arin eta fandango txapelketa egin zen Sebero Altube plazan. 13 bikotek parte hartu zuten eta Astorraitz eta Lore Gazteak dantza taldeko ordezkariak osatu zuten epaimahaia. Lehen postua, Jon eta Maite bergarrek eskuratu zuten, bigarrena Mederi eta Leire lezotarrek eta hirugarrena, berriz, Ordiziako Anek eta Josebak.

HILDAKOAK

- June Itsaso Ortiz de Landaluze Diaz. Azaroaren 29an.
- Andoni Calvo Murillo. Abenduaren 14ean.
- Julen Etxabe Urbina. 15ean.

HILDAKOAK

- Concepción Solaberrieta Arsuaga. 80 urte. 7an.
- Maria Jesus Isasi Esparza. 31 urte. 7an.
- Maria Dolores Roncal Zarate. 62 urte. 7an.
- Joaquin Domingo Rodriguez Delgado. 57 urte. 11an.
- Antonio Martinez Garcia. 85 urte. 10ean.
- Pascual Garcia Garcia. 28 urte. 10ean.
- Maria Zabalo Lizarralde. 83 urte. 11an.
- Martina Abasolo Etxanove. 87 urte. 13an.
- Paulo Zillaurren Mazmela. 72 urte. 14an.
- Serapio Mascariano Gastañaga. 87 urte. 13an.



Erakusketa 47 milioi pezeta kostada.

Aurkeztu dute Maltzaga-Urbina autopista proiektua

Asteazkenean Arrasaten inauguratu zuten erakusketa ibiltariaren bidez, Maltzaga-Urbina ardatzean egin asmo duenaren berri eman zuten Debasak. Erakusketa dau-den panel, argazki, mapa eta maketek era-kusten duten moduan, oraingo errepidea berri- eta Europako bidegorri luzeena izango litzatekeen egiteaz gain, autopista ere eraiki nahi da.

LKS eta Sestra enpresak egindako behin-behineko proiektuan ikus daitekeen moduan, 44 kilometro izango litzuke autopistak eta egunero, 17.000 eta 20.000 ibilgailuk erabiliko dutela aurrikusita dago. Tunelei dagokienez, 10 tunel eraikiko lirateke, luzeena Dorletakoa izanik, kilometro eta erdikoa. Zubibideek, oster, 5 km osatuko lukete. Bide azkar hori eraikitzeak, gutxienez 80.000 milloitako kostua izango du eta gehienez 105.000 milioitakoa. Horretarako finantziario pribatua eta publikoa erabiliko da, %50a laguntza publikoa izanik eta beste erdia, pribatua. Bidesaria, berriz, biguna edo soziala izango litzateke, hau da,

merkeagoa eta honako bi puntu hauetan dohain: Bergararik Arrasatera eta Arlabanetik Etxabarri Viñara.

Roman Sodupe, garraio eta bide azpiegituretako diputatuak adierazi zuenez, finantziario publikoaren gaia lotzeko Madril-ekin negoziatu beharko da. Diputatuak gaineratu zuenez, Maltzaga-Urbina proiektua da datozen urtetan errepide-azpiegituraren gaiaren inguruan, Euskadik duen erronkarik garrantzitsuen. Bidesarea 96an egiten hasteko asmoa dago eta 99rako amaituta izango dela espero dute.

Autopista eraikitzeak asmoa salatuz, hainbat herritarrek euren desadostasuna azaldu nahi izan zuten inaugurazio egunean. Lau Bide plazan, Haran-Bizia taldeko partaldeek azaldu zuten, bailara honek behar duena ez da autopista.

Erakusketa urtarrilaren lehena arte izango da Arrasaten eta alegazioak, berriz, martxoaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dira Gipuzkoako nahiz Arabako Foru Aldundietan.

Irakozizun ugari egitamu orokorraren gainean

Egitamu orokorrari buruz egindako irakozizun ugari jaso dituzte Udaletxeko Hirigintza sailean. Joan den ostirala arte 66 irakozizun jaso zituzten Udaletxean baina egunotan beste batzuk ere iritsi dira eta Errege egunera arte gainera, horiek aurkezteko epea zabalik izango da, hirigintza-koen ustez garrantzitsua da eta ahal den eta irakozizun gehien jasotzea.

Hirigintzako arduradunen esanetan, espero baino gehiago jaso duten arren, banan-banan aztertuko dira eta erantzuna ere guztiei bidaliko zaie. Aipaturiko 66 irakozizunetatik, 45 partikularrek (kasu partikularren inguruan) egindakoak izan dira eta beste 21 gai orokorren ingurukoak.

Gai orokorre- dagokienez, aparkalekuen arazoa kontutan hartzea eta kamioientzako toki bereziak egitea eskatu da. Horrez gain, etxebizitza gehiago eraikitzea ere eskatu da eta zoru urbanizazina izan arren, seme-alabak bertan bizi izan daitezkeen baserri auzoetan etxeak eraikitzeak aukera jasotzea ere aipatu da. Bestalde, Arrasateko portaloiak berreskuratze-ko ahalegina egitea ere eskatu da, besteak beste.

NAROKI

Urrezko bitxiak

ERDIKO KALE, 23
ARRASATE

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



Gaztelekua 17tik 22 urte bitarteko gazteentzat izango da.

Txatxilipurdi arduratuko da Oñatiko gaztelekua zuzentzeaz

Oñatiko udaletxeak gaur bertan (ostiralean) zabaldu duen gaztelekuaren dinamizazioaz Arrasateko Txatxilipurdi elkarte arduratuko da. Oñatiko Udalak irailean proposatu zion Arrasateko elkarteari ardurari hori hartzea eta proposamena aztertu ondoren, onartu eta gaztelekuko zuzendariaz batera lan egingo duten bi dinamizatzaile izendatu zituen Txatxilipurdik lan hori egiteko. Horietako bat oñatiarra da eta bestea Xabin Lara arrasatearra.

Txokoa, 17tik 22 urte bitarteko gazteentzat izango da eta bertan Arrasateko gazte-txokoetan egiten diren antzeko ekintzak egiteaz gain, gazteen interesekoa den

informazioa eskura izango da eta asteburuarako diskoteka antzeko bat ere antolatu dute. Helburua, ostera, gazteen arteko harremanak bultzatu eta gustoko dituzten ekintzak antolatzeko txoko bat eskaintzea izango da.

Txatxilipurdiko arduradunen berbetan, txoko hori zabaltzeak erakusten du beste herri batzutan ere adin horretako gazteei zerbait eskaintzen ahalegintzen direla, gaur egun gizarteak gazteei ezer gutxi ematen die eta. Elkartearantz, berriz, ardura hori hartzeak esparru baten espezializatzea dakarrela uste dute Txatxilipurdikoek.

Unicef eta Fagor

UNICEF nazioarteko erakundeari munduko ume behartsuenentzat dirua lortzen lagunduko dio Fagorrek. Helburu horrekin, autonomi elkarte bakoitzeko sukaldari ezagun batek menu berezi bat gertatu du eta jakia zelan prestatzen den bidez grabatu dute. Jakina, hamazazpi sukaldari Fagorrek utzitako sukaldeetan prestatu dute janaria.

Iparra-hegoa

Iparra-hegoa programaren barne, honako talde ez gubernamentalei emango die laguntza Arrasateko Udalak: Euskal Fondoari 760.000 pta, Mugarik Gaberi 750.000 pta, Mugen Gainetik taldeari 784.000 eta Mundua eta Pakeari 606.000 pta.

Lorategiak berritu

Arrasateko Udalak, 725.000 pta gastatuko du San Viator txikiko lorategia berritzen; beste 2.650.000 pta Santa Teresako lorategia berritzeko eta azkenik 289.000 Makatzenakoetan.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Fagor Elekatresnak eta Fagor Industrialeko jubilatuek egun berezia izan zuten azaroaren 18an. 78 jubilatuta eta eurerekin etorritako senar eta emazteak, guztira 146 lagun elkartu ziren San Andresko lantegian eta eguna ospatzeko bazkaria Zelai-Zabal jatetxean. Ez zen umore faltarik izan eta Galarra lankideak soinua joaz alaitu zuen festa. Bazkide bakoitzak "Varilla batidora" bat jaso zuen oparizat eta emakume guztiak larraso bana.

Joan den ostiralean, abenduaren 16, Arrasateko Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleek, urte bukaerako afaria egin zuten, ohi duten bezala. Bertan, Olentzero agurtzeko aukera izateaz gain, umorea eta giroa ez ziren falta izan. Olentzerok, nola ez, ohiko oparitzoak ere ekarri zizkien; baina, oparirik ederrena bakoitzak bere barruan eraman zuen jai euskaldun eta jator baten oroimena izan zela. Ahaztu baino lehen, Joxerra Agirreurreta zuzendariari Olentzerok semetxoa, Beñat, ekarri zion oparizat.



Lubia
Cinetakoak

**Gabon jai eta
urteberri
zoriontsuak
opa dizkizuegu**

AUKERA ZABALA ZURE KONFIDANTZAZKO DENDAN

Biteri, 1 ☎: 79 66 53
ARRASATE

Mitarte, 14 ☎: 79 16 00
ARETXABAleta

Jesus J. Giraldo Argüello

Liseriketa aparatuak

(X Izpiak & Endoskopiak)

(Lagun-Aro, PREVIASA, Foru Aldundia, partikularrak)

Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2. B
Tfnoa: 79 04 14

20500 ARRASATE

IZEN PROPIOAK

Ikerne Altube, 26 urteko arrasatearra izango da ARKOko gerente berria. Enpresa zientzietan lizentiatua da Ikerne. Aurretik administrari lanak bete zituen eta ARKOko publizista izan da. Agurtzane Gainzarain ordezkatu du.

Leire Zubikarai ik arrasatearrak Erasmus proiektuko beka lortu du eta Estrasburgora joango da urtarrilean ikastera. Leire Arte Ederretako 4. kurtsoa ikasten ari da eta 3 hilabetez ikasketan Estrasburgon egingo ditu.

San Frantsisko Xabier eskolako errektore Kontseilurako ordezkari berriak aukeratu dira. Langileen aldetik; **Arantza Gallastegi**, **Hirune Iribecampos** eta **Amaia Anduaga**. Gurasoen aldetik, **Elias Errarte**, **Beatriz Letamendi** eta **Juan Ramon Mendieta**.

San Frantzisko Xabier ikastolan ibili ziren eta guztiak 1970an jaiotakoak dira. Duela 10 urte irten zuten ikastolatik eta urtero elkartzen dira afaria egiteko. Abenduaren 2an 20 lagun elkartu eta afaria izan zuten Hostalean. Afalosteko juerga sekulakoa izan zela ere jakin dugu.

Ikerlan ikerketa zentruak 20 urte bete ditu eta egun berezi hori ospatzeko bazkaria izan zuten bertako langileek. Guztira, langileak, bekariok, praktikak egiten ari diren ikasleak eta garbitasuneko langileak kontutan izanda, 162 lagun elkartu ziren Gure-Ametsa jatetxean. Jai giroan eta umorez pasa zuten eguna.



PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Sagasta Harategia

Zorionak jai hauetan!

Maalako arrabala, 6 Tfnoa: 79 13 22



Txapasek eta Miren
Axpek 100.000 pta irabazi dituzte Egunkariako Tonbolan. Txapasek Monte tabernan erosi zuen 100.000 pezetako boletoa eta Mirenek Ederra tabernan. Jabi tabernaria izan zen Mireni zortea eman zion

boletoa saldu zuena. Diru kopuru hori ondo baino hobeto etorriko zitzaien bi zortedunei, dirua gastatzeko sasoi aproposa da eta. Ez da ahaztu behar AEDk koordinatzen duela Egunkariako Tonbola Arrasaten.



Arantzazu Loidik emakumeen lanaldi bikoitzari buruz ARRASATE PRESEN 252. zenbakian argitaratutako artikuluak Emakunde sarietan ohorezko aipamena jaso du, prentsa eta informazio orokorraren atalean. Abenduaren 14ean egin zen sari banaketa ekitaldia Gasteizen Emakundek duen egoitzan eta ekitaldian Arantzazu lehendakaria egon zen. Zorionak!

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
 Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
 Telefax: 793412

**“EDERTU”
 ileapaindegia**



San Andres auzoa
 Tfnoa: 79 04 28



Arrasate Pasealekua 4,
 Tfnoa: 79 14 90
 ARRASATE

**Hilbera
 kafetegia**

Urbarri Etorbidea
 ARRASATE

ZALDIBARKO Txapelketa

Futbito 94-95

Babesleak: JMa, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Jardunaldi istriputsua

Gorka Carmona Brito, Iluna Taberna taldeko 22 urteko jokalaria istripu larria izan zuen domekan, Cervecera Leintz taldearen kontra jokatzen ari zen neurketan. 7 eta 1 irabazten zuen Cervecera Leintzek, zoritxarreko jokaldi batean Gorkak buruaz Zaldibarko frontoiko orma jo zuenean. Golpearen ondorioz, konortea galdu zuen, konbultsioekin hasi eta belarrietatik odola zeriola jarri zen. Anbulantzia etorri bezain pronto, Arrasateko ospitalera eraman zuten eta berehala Santiagora. Burezurra hautsita dauka Gorkak, baina, bere egoerak hobera jo du nabarmen az-

ken egunetan. Hemen-dik animoak bidaltzen dizkiogu eta lehenbailehen osatzeko nahia. Istripu larriena Gorkarena izan bazen ere, domekan AC Surcos taldeko Andoni Ruizek hankan esguinzea egin zuen, BZ Sistemas taldearen kontrako partiduan. Beraz, aste batzutan Andoni ere Zaldibarko txapelketatik kanpo geratuko da, hanka osatu arte gutxienez. 11. jardunaldia istriputsua izan da oso Zaldibarko txapelketan. Urteko azken jardunaldia nahiko beltza izan da jokari batzuentzat. Espero dezagun 95a berri pozgarriagoekin hastea.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23



A

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SALENCO Y KONP.	11	10	0	1	60	24	20
CERV. LEINTZ	11	9	0	2	74	22	18
BUKANAK	11	8	2	1	51	32	18
ADELAIDA-HAIZEA	11	8	2	1	56	24	18
ZULOAK	11	6	4	1	45	27	16
FOSFOROS	11	7	1	5	42	19	15
ZOTZ	11	6	2	3	42	31	14
KRISKIBALDA	11	7	0	4	41	36	14
HIREI	11	5	1	5	50	34	11
ATERPE	11	5	1	5	35	41	11
LOS DALTON	11	4	2	5	41	52	10
ARRAS. KIROLAK	11	3	3	3	40	47	9
FRAGUEL GOL	11	3	2	6	34	42	8
GANBELAS	11	3	2	6	37	37	8
ASTOEN VILLA	11	3	1	7	33	53	7
INSERT COIN	11	3	0	6	45	59	6
EZTAND. EGIN ARTE	11	1	4	6	26	67	6
ILUNA TABERNA	11	2	1	8	27	64	5
BAYER LEINTZ	11	1	2	8	28	58	4
STRAUSS	11	1	0	10	35	72	2

B

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	11	10	0	1	72	17	20
NUEBO TABERNA	11	8	1	2	51	31	17
UGLYS TXINATO	11	7	2	2	69	26	16
SUMIS. UGARTE	11	7	2	2	45	24	16
PETROLEROS	11	7	1	3	50	26	15
TXEYENEX	11	7	1	3	53	28	15
PEPELUS	11	7	1	3	52	28	15
TOTEM	11	6	3	2	50	27	15
PUB PEOPLE	11	7	1	3	61	39	15
LOS DIMY	11	6	1	4	58	28	13
DANOK LAGUN	11	5	3	3	47	32	13
BERANGO SUK	11	6	1	4	37	29	13
NO COMMENT	11	3	3	3	26	60	9
ANBOTOSTE	11	3	2	6	32	39	8
LA BANDA	11	2	1	6	23	58	8
EZKINAKO HONTZAK	11	2	1	5	21	62	5
MONTERREY TAB.	11	1	2	8	24	64	4
ARRASATE ZOO	11	1	1	9	21	64	3
TOVARIXTX	11	1	0	10	13	60	2
ORKATZ	11	0	1	10	19	81	1

C

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	11	11	0	0	67	15	22
LORATEGI POTROAK	11	8	1	2	39	19	17
EQUUS	11	8	1	2	62	29	17
AUTOS MURU	11	7	1	3	45	24	15
ORLANDO PIRATAS	11	7	1	3	46	27	15
ARTZANKOS UDAL.	11	7	1	3	42	28	15
KE OXTIAS!	11	7	0	4	47	43	14
FRANTZISKANNER	11	6	1	4	40	35	13
EXCA. LETE	11	6	0	5	42	26	12
NABARROS	11	6	0	5	49	44	12
PERRAHOTSA	11	6	0	5	29	34	12
BODISCA	11	5	0	6	37	42	10
KOKA JUNIORS	11	4	2	5	25	34	10
JOTAKABAU	11	2	4	5	32	41	8
BANEUKO	11	3	1	7	23	37	7
FOTO IMAGEN	11	2	2	7	35	51	6
LEYA	11	2	1	8	33	66	5
POTROSORRI	11	2	0	9	27	54	4
TXOKO TABERNA	11	1	2	8	19	56	4
DKB	11	1	0	10	22	56	2

D

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	11	10	0	1	62	20	20
MSM ING INTEGRAL	11	9	1	1	58	18	19
A.C SURCOS	11	9	1	1	71	38	19
D.A IRIZTU	11	7	3	1	64	30	17
MIKELOS	11	6	0	3	54	27	16
LOS HEREDIA	11	7	1	3	51	39	15
SOKOAKOAK	11	6	2	3	43	32	14
OJO AVISORE	11	6	1	4	43	37	13
LAUTHERBRUNNER	11	6	0	5	49	39	12
BORROCK'N ROLL	11	5	1	5	47	37	11
TRONKOTEAK	11	3	4	4	35	51	10
ANORTHOSIS	11	5	0	6	28	31	10
B.Z SISTEMAS	11	4	1	6	29	36	9
ALTZA PORRU	11	4	1	6	37	39	9
KAKAJAURI	11	4	0	7	36	46	8
MOTZ	11	2	1	8	42	54	5
SUKAR	11	2	1	8	35	58	5
TEODOLITO	11	2	0	9	27	71	4
ELISABETH	11	1	0	10	20	63	2
RESAKAS	11	1	0	10	26	60	2



Kalitate gorena leihoetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Uriarte

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**
Ferreries kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



BELARRIRA

◆ **Kanporatua.** Anorthosis Agudah taldea txapelketatik kanpo geratu da, domekan goizeko 10etan Teodolito taldearen kontra jokatu behar zuen neurketara agertu ez zelako. Aurten kanporatu duten lehen taldea da Anorthosis. Kanporatua izan delako, hemendik aurrera talde honen kontra jokatu behar zuten taldeei neurketa irabazita emango zaie.

◆ **Errege eguna.** Ur-tarrileko lehen jardunaldia ostiletik domekara arte jokatuko da. Bi egunekoia izan beharrean hiru egunekoia izango da 12. jardunaldia. Jokalariek Olentzerok eta erregeek ekarritako opariak estreina-tzeko aukera izango dute.

◆ **Golak.** 11. jardunaldian 309 gol sartu dira guztira. Taldez talde: A taldekoek 93 sartu dituzte, Bkoek 53, C multzoko taldeek 82 eta D taldekoek 81. Gol gehien sartu duen taldea Zotz izan da 12 golekin eta jarraian Altza Porru dator 10 gol lortu ditu eta.

EMAITZAK

A Taldea

- Iluna Taberna 1 Cerveceria Leintz 7
- Strauss 3 Zotz 12
- Bayer Leintz 1 Hirei 5
- Kriskibalda 6 Fraguol Gol 2
- Astoen Villa 1 Zuloak 9
- Bukanak 7 Arraste Kirolak 2
- Salenko y Konp 8 Eztanda egin arte 2
- Fosforos 1 Adelaida Haizea 7
- Los Dalton 9 Insert Coin 7
- Ganbelas 1 Aterpe 2

B taldea

- Ezkiñako Hontzak 2 Uglys Txinato 5
- Monterrey Taberna 0 Txeyenex 6
- Los Dimy 3 Suministros Ugarte 4
- Petroleros 1 Totem 3
- Pepelus 3 Pub People 3
- Orkatz 2 Trikiti 6
- Anbotoste 1 Nuevo Taberna 2
- No Comment 2 La Banda 2
- Arrasate Zoo 0 Danok Lagun 5
- Tovarix 0 Berango Sukaldeak 3

C Taldea

- Potrosorri 3 Equis 6
- Autos Muru 0 Irati STS 7
- Perrahotsa 4 Orlando Piratas 3
- D.K.B 1 Baneuko 5
- Nabarros 8 Foto Imagen 2
- Lorategi Potroak 3 Koka Juniors 0
- Bodisca 2 Frantzisanner 4
- Leya 2 Jotakabau 8
- Artzankos Udal 9 Txoko Tab. 4
- Exc. Lete 9 Ke oxtias! 2


D Taldea

- Altza Porru 10 Motz 6
- MSM 7 Kakajauri 2
- Borroch'n Roll 2 Mikelos 4
- D.A. Iriztu 9 Resakas 2
- Sokoakoak 9 Sukar 2
- Elisabeth 2 Argi Ibili 7
- Los Heredia 4 Lautherbrunnen 1
- B.Z Sistemas 2 A.C Surcos 5
- Teodolito 1 Anorthosis Agudah 0
- Ojo Avisore 3 Tronkoteak 3



**AGRICENTRO
OTXOA, S.L.**

- **NEKAZARITZA:** haziak, ongarriak, produktu agrokimikoak, e.a...
 - **ABELAZKUNTZA:** pentsuak, botikak, abereentzako materiala, baserrirako tresneria, e.a...
 - **LORAZAINTZAKO PRODUKTUAK:** ureztatzea, keramika, ongariak, e.a...
 - **ETXEKO ANIMALIENTZAKO JANARIAK:** (txakur, katu, txori eta arraintzakoak)
- Musakolako Industrialdea, z/g ☎: 79 17 79 / 79 86 70
ARRASATE



Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan. Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06


Urtea bukatzeko, sorpresak



Asteburu honetan Zaldibarko txapelketak eman dituen emaitzei gainbegirada emanez, ezuste batzurekin egiten dugu topo. Adelaida-Haizeak 7 eta 1 irabazi zion Fosforos taldeari, gol gehiagi jaso zuen Fosforosek aurreko postuetan dagoen taldea dela kontutan izanda. Strauss taldeak, bestalde, 3 eta 12 galdu zuen Zotz-en kontra. Azken bi jardunaldietan ikaragarritzko jipoiak jaso ditu Strauss taldeak. Bi jardunaldietan 30 gol sartu dizkiote et, 2 punturekin azken tokian egotea ulertzekoa da, jakina. Garagartza eta Gesalibarren arteko Derbia ere jokatu zen zapatuan, DKB eta Baneuko izan genituen aurrez aurre eta merezimendu osoz Garagartzakok irabazi zuten 5 eta 1. Gesalibarkok ez dute burua

altxatu oraindik eta azken tokian daude 2 punturekin. Los Heredia taldekoek Lau therbrunner taldearen kontra neurtu zituzten indarrak eta Los Herediakoek 4 eta 1 irabazi arren, esan digute fisikoki kazkar samar dabiltzala, urtero sailkatzen direnez aurren ere ez dute kale egingo, baina zaindu egin beharko dira, txapelketan itxurosoa egin nahi baldin badute.


Joan zen asteburuan 94ko azken jardunaldia jokatu zen. Zaldibarrek atsedena hartuko du urtarrilera arte, eta errege egunean jarriko da txapelketa berriro ere abian. Orduan 8 neurketa besterik ez dira faltako lehen fasea bukatzeko. Zaldibarrekin batera, guk ere atsedena hartuko dugu, beraz, Gabon zorionsuak guztioi eta Urte berri on.



weru[®]
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

● Jose Mari Ruiz Uribarri-Erguingo dendarien batasunaren bila

Erdikaldeko merkatariek baturik eta lanean ari dira Ibai-Arten. Baina herriko auzoetan ere bada go dendarik, eta etorkizunean Arrasate inguruetako merkatal gune izan dadin, herri guztira zabaldu nahi da merkarien batasuna. Ideia asko dago; orain dendarien interesa dago ikusteko.

— Zelan hasi zineten biltzen?

— Ibai-Arterekin izan genuen harreman baten ondorioz, mugitzen hasi beharra zegoela ikusi genuen, auzoetan ezer ere ez zegoela eta. Hitzegiten hasi eta jarrera ona ikusi zen, lehenik eta behin biltzen hasi. Hartatik, Uribarri, Erguin, Munar, Uribe Auzoa eta Arimazuri inguruko merkatarik guztiei deia egin zitzaion eta bilera hartatik taldetxo bat eratu da, aurrera egiteko. Oraingoz batzorde bat, jende gehiago izan artean. Interesa ikusi dugu, eta auzoko gehiago batuko delakoan gaude, denbora denon arazo izan arren.

— Eta asmoak?

— Bi helburu ditugu: Alde batetik Ibai-Artekin duen lana, merkataritzari dagokion guztia. Eta horrekin batera, auzoko arazoak, denoi dagozkigunak: zaborrak, espaloiak, garbitasuna, gauza

praktikoak, bizilagunen arazo ere badirenak, eta behar den guztia ikutzeko irekita gaude. Otsaila edo martxo alderako beste bilera bat egin nahi genuke eta gero gaiak lantzen hasi. Lehenik eta behin, elkarrenganatu eta indar hartu. Oraingoz Ibai-Arterekin harremanetan gaude, ideiak eurengandik irten zuen eta. Ibai-Arte ere ez dago itxita; erdikaldetik hasi ziren, dena batera ezin delako, baina etorkizunean ez dakigu zer izango den, dena Ibai-Arte edo auzo bakoitzeko elkarteak horrekin batuta. Oraingoz hasten gaude.

— Zelan ikusten duzu Arrasateko merkataritzaren egoera?

— Krisitik irteten ari gara dirudi eta ilusio apur bat ere ikusten da. Gai guzti hauengatik ilusioa ikusten da, gauzak hobeto egiteko gogoia. Nire iritziz apur bat utzita edo galduta dago, baina belaundi berria dendak zer izan behar duten ikusten ari da: orain merkatal zentruen eta dendek ematen duten zerbitzua bereiztu egin nahi da. Dendena askoz ere profesionalagoa, atentzio gehiagokoa, kalitatezkoa eta prestatzen ari da. Orain lo edo ikusten dut, baina etorkizun handia ikusten diot guzti horri.

— Erdikaldeko dendek



auzoetakoei kalte egiten dietela ere beti esan izan da.

— Nire ustez bakoitzak bereagatik borrokan egin behar du. Konpetentzia ona da, legezkoa den artean. Jendea erakartzeko prezioa botatzea, horixe da egin behar ez dena. Gure sailean adibidez, ona da erdikaldean goxotegi on bat egotea, berba egin eta prezioak eta beste hainbat gauza errespetuz gero, hortik aurrera bakoitzak nahi duena egin dezake; besteek ondo lan egitea ona da, norberak hobeto egiteko modua izateko. Konpetentzia ona da jendeak erosten ikas dezan ere. Erdikaldean gehiago erosten dela ere esaten da, baina ez nago seguru. Erdikaldera iristea gehiago kostatzen da eta horrek auzoetakooi aukera ematen digu.

— Inguru honetako arazok zeintzuk dira?

— Zaborrena arazoa da askotan. Asteburuetan lan egiten duen jendearentzat salto handia izaten da osteteguetik domekara edo martitzenera. Espaloien garbiketari buruz ere denok dugu zeresana: badirudi garbitzaileak ez duela garbitu beharrik, eta garbitzeko makinak jartzea komeni da, edo ura botatzen duen kamioiak eskaparateak zikin-zikin uzten dizkigu... Gero auzoari bizitza apur bat emateko, auzoko jaiak abuztuan direnez, isilik pasatzen dira, beste festaren bat antolatzea ere pentsatu dugu, auzo alkatetzarako lokal bat lortzea... ez da dendarien arazotarako bakarrik, bizilaguentzat ere interesgarria dela uste dugu. Gero inguru hau eta parkea ezagutzera jendea etor dadin propaganda egitea ere komeni da; aparkalekuen arazoa ere hor dago. Gai asko dago, lanean hastea falta.

● **“Erdikaldean gehiago erosten dela ere esaten da, baina ez nago seguru”**

Gabonetako errezetak

Egun hauetan asko berba egiten da janariez. Larregi akaso. Baina tentazioak izan dugu guk ere oraindik zer prestatu pentsatu barik duenari edo Gabon Zaharretarako denboraz

egin nahi duenari ideai batzuk emateko. Jatetxeetako sukaldariengana jo dugu, eta poltsiko eta gusto guttiarako platerak batu ditugula esan behar. Gusto baduzu... on dagizula!

Miren Julene Iturbe Gau Txoriko sukaldaria

- *Entremes hotz eta beroak:*
zainzuriak, Jabugo urdaiazpikoa, pateak, almejak marinera erara, frihatxa nahaskia eta berakatz fresko eta ganba nahaskia.
- *Salda*
- *Bisigua edo labean erretako bildotsa, letxuguentzalatadarekin.*
- *Konpota edo fruta mazedonia*
- *Gozoak eta turroia*



Errezeta:

Bildotsa labean erreta

Bildotsa zatitu, erretiluan ipini eta gatza, berakatz freskoa eta olio apur bat bota. Azpirako ur apur bat ere ipini.

Labe berotuan sartu, eta ordubetez eduki, labe ez oso bizian. Denbora horretan zehar zaindu eta beharrik badu ura gehitu, gorritu arte.

Gorritutakoan buelta eman eta berriz ere gauza bera egin.

Paki Ortega Ugaran jatetxekoa

- 1) *Urdaiazpiko Iberikoa*
Zigalak plantxan
Foi gras beroaren tosta
Kardoak almendra saltsaz
Angulen entsalada epela
- 2) *Oreinarean solomoa*
- 3) *Fruta konpota eta turroia*
Edariak: Sauternes Zuria, Piper Heidsieck txanpaina eta 87ko ardo beltz inperiala.



Errezeta:

Kardoak almendra saltsaz

Kardoak ondo garbitu, lauki luzeetan zatitu eta irin apur bateaz ur gazitan egosi. Ondoren ura kendu. Aparte, lau berakatz-atal eta ogi apur bat frijitu eta almendra ere sueztitu. Guzti hori almai-zean zapaldu eta hegazti salda apur batera bota dena. Ondoren hori kardoekin nahastu.

**M^a Pilar Collantes
Ruth Gatzagako
sukaldaria**

- *Ostra gratinatuak habiarraraz*
- *Tzira handia*
- *Ahate-solomotxoaz beterik mori-
lla edo karraspinak*
- *Saltsaz napaturiko solomotxo
deliziak*
- *Bisigua labean*
- *Konpota*



Errezeta:


Karrasпина beteak

Karraspinak edo morilak perretxikoak dira.

Uretan ondo garbitu eta bete egiten dira eta oliba oliotan egiten ipini, berakatz xerra batzuekin. Oliba poliiki irakin dezala eta horrela 20 edo 30 minutu eduki. Perretxikoen oinekin eta hondatutako perretxikoekin saltsa egiten da, nata bota eta batidoran pasatuz. Zerbitzatzeko orduan, olio ondo kendu eta aurrez prestatu dugun saltsarekin estali.

**Bixente Pagoaga
Mitarte Garai jatetxeko
sukaldaria**

- *Olixo azak*
- *Ahatea laranja erara*
- *Intxaur saltsa*
- *Edateko, arda u beltza*



Errezeta:

Ahatea laranja erara

Ahatea pisatu, kiloko ordubete behar du laban eta. Tarteran ipini eta olio eta gatza bota gainetik. Laba 260º tan ipini, ahatea sartu eta gorritu arte eduki. Ostein olio kendu, bi laranja zukua bota gainetik eta aluminiozko paperaz tapatu ostein berriz ere laban sartu. Gorritu bitartean salda bat prestatu behar da, ahatearen parapurdinaz, ipurtxuntzurraz eta beste bi laranja. Laranja zukua bota ostein betibe ahatea atera eta salda gainetik bota. Salda botatzerakoan papera kendu baina laban sartzerakoan berriz ere alba jarri, ez kixkaltzeko.

**Eusebio Navo
Etxe-Aundiko
sukaldaria**


- *Angulen entsalada*
- *Frutaz beteriko pularda
txanpan erara*
- *Konpota*



*Frutaz beteriko
Pularda txanpan
erara*

2 kiloko pularda, Cava botila bat, 6 errege-sagar, Kilo erdi mahats zurituta, 4 koilarakada olio, 50 gr. gurin, gatza eta piper-hauts beltza.

Pularda garbitu, lumatu eta barrutik dena kendu. Barrutik eta kanpotik gatza eta piperra egin. Sagarrak laukitotan zatituta eta mahats aleak zurituta eta haziak kenduta sartu barruan. Kanpotik gurina eman, olio bota eta gurinez bustitako labeko txapa baten gainean ipini. Labe beroan sartu eta 60 edo 70 minutuz eduki. Atera baino 20 minutu lehenago txanpaina bota eta amaitu arte utzi.



Kirol talde gehienek urtarrilera arte atsedena izango dute jardunaldi ofizialei dagokienez.

94ak eman du berea kirol mailan

Kirol talde gehienek azken neurketa jokatu zuten joan zen asteburuan; urtarrilera arte, beraz, atsedena izango dute gehienek. 3. mailako Mondra taldeak Alaves taldearen kontra jokatu zuen Ibaiko futbol zelaian igandean eta husnako berdinke-ta lortu zuen. Mondrak aurkariak baino gol aukera gehiago egin arren, ez zen gol aukera horiek aprobe-txatzeko gauza izan eta gol barik bukatu zen neurketa. 16. jardunaldia jokatu eta gero, Mondra 10. postuan dago 17 puntu eta positibo bakarraz. Orain arte egin-dakoari gainbegirada emanez, Mondrak 6 neurketa irabazi ditu, 5 berdindu eta 5 galdu. 17 gol sartu ditu

eta 18 jaso. Abenduaren 31ean urteko azken neurke-ta jokatu du Mondrak Urola taldearen kontra, Atxabalpen. Arratsaldeko 3.30etan jokatu da parti-dua. Lehen mailako esku-baloi taldeak irabazi egin zuen azken jardunaldia Bur-gos taldearen kontra: 26-15 izan zen azken emaitza. Arrasate 7 punturekin 6. tokian dago. Jokatu-tako 10 neurketetatik 3 irabazi ditu, bat berdindu eta 6 galdu. Urtarrilaren 7ra arte ez dute jardunaldirik izango eta orduan Torrelavega taldea izango dute aurrean. Urbi-na- Maltzaga saskibaloi tal-deak Iturripen jokatu-tako neurketan irabazi egin zuen Concello de Portas taldea-

ren aurrean. Denboraldiko 4. garaipena lortu zuten. Badirudi Txus Brizuelaren mutilek gorako bidea hartu dutela eta horren lekuko, azken neurketetan lortutako garaipenak. Urbina Mal-tzagak jokatu-tako 12 nor-gehiagoketatik 4 irabazi egin ditu eta 8 galdu; kon-tuak kontu 11. postuan dago 16 punturekin. Hauek ere ez dute partidu ofizialik izango urtarrilera arte. Urtar-rilaren 7an Askatuak eta Urbina Maltzaga izango ditugu aurrez aurre. Der-bia bizia bezain zaila izan daiteke arrasatearrentzat, baina dakiten bezala jokatu ezker, Urbina Maltzagak samur lor dezake 5. garai-pena.

LABURRAK

santamas XVI. krossa igandean

Santamas XVI. krossa jokatu zen domekan eta mai-la desberdinetako irabazle-ak hauek izan genituen. Gutira 160 korrikalarik hartu zuten parte. 13 eta 14 urte bitartekoen artean Oliver Fernandez eta Ihintz Bengoa izan ziren azkarrenak. 11 eta 12 urtekoetan Fernando Nogales eta Alazne Ruiz de Munain. 10 urtekoen mailan lehenak Iker Elortza eta Esther Baedano izan ziren. 9 urtekoetan onenak Josu Galan eta Amaia Ormaetxea izan genituen. 8 urtekoetan Josu Etxebarria eta Saioa Gonzalez eta azkenik txiki-txoen artean, Andoni Andres helmugaratu zen lehen tokian eta Eider Ros emakumeei dagokionez. Nagusien ibil-bideak 6 kilometro izan zituen eta 3 buelta eman behar izan zizkieten partai-deek. Nagusien arteko mailan helmuga pasatzen azkarrena Jabi Mentxaka izan genuen, bigarrena Alfonso Luelmo eta emakumee-tan Antonia Pacho lehena eta M^o Jose Gil bigarrena. Betero-noei dagokienez, Jose Galan eta M^o Jose Gilek jaso zituz-ten txalo guztiak. Kuadrilen arteko sailkapenean 58 pun-turekin Caracoles taldea izan zen onena eta 94 punturekin emakumee-tan Tortugas tal-dea.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

MARGOAK
JUANMA

Margoak, paperak,
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17

Begoña
lurrindegia
Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

IZASKUN
Arraindegia

Freskoena gurean
aurkituko duzu

Araba etorbidea, 3
Eskatu pabilioia. Dktor Bañez, 13
☎: 79 18 86 ☎: 79 15 10

PENALTIAK

● Euskadiko karate txapelketa kadete eta junior mailan izan genuen Musakolako kiroldegian igandean, Saioa Karate taldeak antolatuta. 100 karatekak hartu zuten parte eta tartean arrasatearrak ere egon ziren, lau ordezkari izan zituen Arrasatek txapelketan: Erik Martin, Igor Ramos, Isidor Ugarte eta Iker Vitoria. Arrastearrek maila bikaina erakutsi zuten eta sailkapen orokorrean Erik Martinek 2. postua lortu zuen kadete mailan eta Isidor Ugartek 4.ena, juniorretan Iker Vitoria 3. geratu zen. Euskadiko txapelketa lehen aldiz antolatu da Arrasaten eta jendearen erantzuna oso ona izan zen, kiroldegiko harmailak gainezka egon ziren eta antolatzailleek euren poza adierazi ziguten jendearen jarreragatik eta Arrasateko karatekek erakutsitako mailagatik.

● Promozioko txapelketa antolatu du Arrasateko pilota taldeak kadete, jubenil eta nagusi mailan. Aurreko asteburuan lehen neurketak jokatu ziren eta larunbat honetan goizeko 10.30etatik aurrera txapelketako beste zenbait partidu jokatu da Iturripen.

Haritz Arrietak beste errekor bat 100 metrotan

Santamas XII. igeri txapelketa jokatu zen Arrasaten eta Haritz Arrietak 100 metro libretan 57" 47 ehuneko denbora egin zuen, Arrasateko errekorra aise gaindituz. 100 metro librearen egiteko Haritzen aurreko marka minutu batekoa zen eta larunbatean 2" 02 ehunekotan hobetu zuen denbora. 16 urteko igerilari gazte hau, duela 5 urte hasi zen entrenatzen eta epe horretan emaitza ezin hobeak lortu ditu. Iaz 50 metrotan 26" 47 denbora eginez errekorra lortu zuen Tolosako txapelketan eta aurreko Arrasaten errekorra lortu du 100 metrotan. Horrelako emaitzak lortu ahal izateko lan dexente egin behar izaten du Haritzek astean zehar, egunero 7.30etatik 9.30etara entrenatzen du Eneritz Iturbe entrenatzailearen gidaritzapean. Berak dioenez, beharrezkoa da horrenbeste entrenatzea maila on bat lortzeko. Abenduaren 27an Ordizian jokatu den nazioarteko txapelketan hartu du parte, 100 metro



Haritz Arrietak Arrasateko marka guztiak hautsi ditu.

libretan zer egiteko gauza den erakutsi beharko du orduan eta urtarrilean Gipuzkoako txapelketara joango da. Txapelketa honetan ditu jarriak ilusio guztiak Haritzek. Santamas txapel-

ketan Arrasateko taldeak maila ona erakutsi zuen 18 domina lortuz. Jubenil mailan 6 domina lortu zituzten, kadeteetan 2, infantiletan 9 eta erreleboko frogan garai-kurra.

LORTUTAKÓ DOMINAK

100 metro tximeleta

1. Eneritz Elortza, infantila

2. Gotzon Olarte jubenila

1. Rosi Dacosta, Jubenila

100 metro bizkarrean

100 metro Crolean

3. Patxi Orobengoa Infantila

3. Jon Arrieta, infantila

1. Ane Olarte infantila

1. Eneritz Elortza, infantila

3. Izadi Mondragon Infantila

3. Olaia Murua, infantila

1. Ibai Orruño Kadetea

3. Ander Corcuera, kadetea

2. Gotzon Olarte Jubenila

1. Haritz Arrieta, jubenila

100 metro bularrean

1. Maia Mondragon, jubenila

1. Kalde Kabiketa infantila

2. Maider Murua, jubenila

2. Jon Larrañaga, Infantila

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Alaves 0 Mondra 0
Emakumeak: Lagun Onak 4 Mondra 2
2. Erregionala: Kilimon 1 Mondra 1
Jub. Ohez. Liga: Mondra 1 Urola 4
Jubenilak: Arrasate 1 Urki B 2
Lehen Kadeteak: Elgoibar 3 Arrasate 0
2. Kadeteak: Arraste 5 Eibar 4
Infantilak: Ordizia 3 Arrasate 0

Hurrengoa:

3. maila: Mondra - Urola. Larunbata 31a. 3.30etan. Atxabalpe.

Eskubaloia

Lehen maila: Arrasate 26 Burgos 15
Lehen Territoriala: Arrasate 20 Hernani 24

Saskibaloia

Eba Liga: Urbina Maltzaga 82 Concello

71

Futbitoa

Lehen maila: Iveco 3 Arrasate 1
Arabako Territoriala: C. Saenz 6 Arrasate 4

Pilota

"Promozio txapelketa", larunbatean 10.30etatik aurrera Iturripen.

Uriarte

SPORT

Zorionak jaietan eta urteberri on

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78

Goiztiri
OPARIK

ZORIONAK ETA JAI ZORIONTSUAK

MAALA, 11

TFNOA: 79 87 43

TAKOLO AUTOAK Arrasaten: OPEL-a herritik mugitu gabe

Mikel Madinabeitia, 15 urtez auto-saltzaile ibilitako 37 urteko arrasatearra, gaur egun TAKOLO AUTOAK banatzailerako arduraduna dugu.

-Zein da Opel Sare Komertzialaren filosofia?

— Gure helburua bezeroaren satisfakzioa lortzea da. Kalitatea prezio onean eskaintzen dugu eta zerbitzu onena emateko bezeroarengandik ahalik eta hurbilen egoten saiatzen gara.

-Zergatik TAKOLO AUTOAK Arrasaten?

— OPEL produktoak beti izan dira ongi etorriak arrasatearren artean eta lorpen haundia izan da TAKOLO AUTOAK Arrasatera zabaltzea, zerbitzu pertsonalizatuagoa eskaintzen baitugu orain. OPEL Sare Komertzialaren banatzaile ofiziala, TALLERES OLA, Arrasatek urrintxo geratzen dela eta, TAKOLO AUTOAK zabaltzen dugun denon



erosotasunerako. Zentrolarekin elkarlana estua da, jakina, TAKOLO, TALLERES OLAREN luzapen bat baita eta bere laguntza teknikoa beharrezkoa.

-Zer zerbitzu barri eskaintzen du OPELek orain?

— Mekanika mailan azken teknologia daukagu motorean, ECOTEC SISTEMA deitzen duguna. Sistema horrek kontsumoaren ekonomia lortzen du eta ekologiarekiko ere konpromezu bat daukagu, gasen emisioa askoz txikiagoa da eta.

-TAKOLO AUTOAKek

ordaintzeko orduan erreztasunik ematen du?

— Dirua izanez gero eta momentuan ordaindu, beti izaten dira deskontu bereziak, baina gaur egun aukera hori jende gutxi daukanez, gazteei bereziki zuzendutako finantziaketa oferta interesgarriak eskaintzen ditugu. Alde batetik, aurten auto bat erosiz gero eta sarrera bat jarri, bi urtetan ez litzateke interesik ordaindu beharko. Beste aukera bat, orain erosi eta 3 hilebete barru arte sosik ez ordaintzea da.

-Gabon hauetarako TAKOLO AUTOAKek ba dauka eskaintza berezirik arrasatearrentzat?

— Gauza bat argi dago: auto bat erostekotan hau dela momentua. Aukera onena stockean daukagun autoetan dago, prezioak inoiz baino merkeagoak dira.

Orain, urtea bukatu baino lehen prezio sinestezinak ditugu, injekziozkoa eta 16 valvulako ASTRA 1.4an eta CORSAko modelo guztietan.

Horretaz aparte, Arrasate eta inguruetan dauden langile kooperatibisten portzentaia altua kontutan izanik, eurentzat ere aukera bereziak ditugu.

-Bukatzeko, zein da zuen mezua gabon hauetarako?

— Lehendabizi, denoi Urte Berri zoriontsua opatzea eta jakina guztiok gonbidatuta zaudetela TAKOLOra etorri eta daukagun aukera paregabeak aprobetxatzera.



Z E R N A H I A G O ?

Jose Luis Sanz

Barraken jabea



- **Nongoa zara?** Zumarragakoa.
- **Noiztik lan honetan?** Betidanik, aurretik gurasoek eramatzen zuten negozioa eta.
- **Gustatzen zaizu lan hau?** Bai, jakina.
- **Lan honen alderik txarrena?** Barrakak montatzea eta desmontatzea: oso lan gogorra da.
- **Onena?** Umeekin daukagun harremana.
- **Zein herritan ibiltzen zarete?** Gipuzkoako herrietan bakarrik ibiltzen gara.
- **Zein musika jartzen duzue?** Hemen, Arrasaten, %100 euskal musika.
- **Zenbat balio du buelta batek?** Arrasateko udalarekin daukagun tratua dela eta, 55 pta.
- **Zenbat urteko haurrak ibiltzen dira?** 10 urtera bitartekoak.
- **Ume batek negar egiten duenean zer egiten duzue?** Barrakatik atera eta gurasoengana eramatzen dugu.
- **Inoiz hartzen duzue oporrik?** Azaroan bakarrik, baina hala ere, barraka konpontzera deditzen dugu hilabete hori.
- **Herrien artean, badago diferentziarik?** Bai, herri batzuk besteak baino hobeak dira.
- **Ze barraka gustatzen zaizu gehien?** "Scalextric"a.
- **Zein ordutan zabalitzen duzue?** 4.30etan.
- **Santamasetako giroaz disfrutatzeke astirik izaten duzu?** Zertxobait bai, baina ez asko.
- **Zer eskatu diozu Olentzerori?** Ez diot ezer eskatzen... beno, bai, eguraldi ona.
- **Baduzue beste barrakarik?** Bai, guztira 3 ditugu: Baby-a, Scalextric-a eta Dragoia.
- **Txurreria alboan izanda, txurro asko jaten duzu?** Asko ez, nire aita txurreroa zen eta nahiko aspertuta naukate txurroek.
- **Zein da umeei gehien gustatzen zaien barraka?** Guztietan ibiltzen dira gustora, ez daukate preferentziarik.
- **Zenbat urte ditu Baby-ak?** 15 urte.
- **Non egina dago?** Zaragozan.

LABURRAK

"Santamasak 94" argazki lehiaketa

Kalean daude "Santamasak 94" argazki lehiaketako oinarriak. Parte hartu nahi baduzu, jakin zuri-beltzeko nahiz koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dituzula. Argazkion formatoak gutxienez 18x24koa eta gehienez 30x40koa izan beharko du. Partaide bakoitzak gutxienez 3 argazki eta gehienez 5 aurkeztu ahal izango ditu, guztiak ere, urtarilaren 10a baino lehen. Argazki bakoitzak 300 ptako dirulaguntza jasoko du antolatzaileen aldetik eta dirua, sari-banaketaren ekitaldian banatuko zaie partaideei.

4 sari banatuko dira: Ingo saria argazki bildumarik onenari egokituko zaio 25.000 ptarekin; 2. saria, argazkirik onena aurkezten duenak etxeratuko du: 20.000 pta; 3. saria bigarren bildumarik onenari emango zaio eta 15.000 ptakoa izango da. Azkenik, 4. saria, Olentzero edo Txoronpioren argazkirik onena aurkezten duenak irabaziko du: 10.000 pta. Badakizu beraz: argazki kamara hartu besterik ez duzu egin behar.

Lore

lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



JOSU

TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

AKELARRE

GOZOTEGIA

Zorionak jai hauetan

Artisau erara egindako

Turroiak, mazapanak, girlatxeak,
polborioak, trufak, gabontartak.

Gogoratu! Biregetako rosakoa ere gurean aurkituko duzu!

Zarugalde, 54 ☎ 77 00 71 ARRASATE


Pedro Luis Ormazabal

Argazki esperimentuetan arrakastatsu

EEBBetako "Cowboy"ei makina bat argazki egin die teknika berri baten bidez eta bere erakusketek sekulako arrakasta izan dute bertan. Orain Gasteizen erakutsiko ditu bere lanak abenduaren 30era arte.

— Betidanik gustoko izan duzun afizioa delako izango zara argazkilari, ezta?

— Beno, betidanik izan naiz oso mendizalea eta mendi batera igotzen nuen bakoitzean bertatik ikusten nuen besteak beste erakustea nahi izan nuen, beraz, afizioa menditik datorkidala esan daiteke. Egia esan, lehiaketetan parte hartzen eta irabazten hasi nintzenezan erabaki nuen argazkilaritzara dedikatzea, beraz, soldaduzka egin eta profesional mailan hasi nintzen. Urte gogorak izan ziren, baina gauzak ondo joan ziren: sozio batekin 10 urtez ikasten egon nintzen Bergaran. Dena dela, 10 urte pasa eta gero, momentuan egiten ari naitzen gauzak utzi eta beste gauza batzuk egiten hasteko filosofiaren aldekoa naizenez, 10 urte haiek pasa eta gero, nire aldetik Arrasaten estudioa jartzea erabaki nuen. Hemen nengoela eta estudioa antolatu nuenean, teknika desberdinak erabiltzen hasi nintzen eta orduan EEBBetara joatea erabaki nuen. Hemengo kulturarekin apurto eta bertakoa ezagutzeari zere nire helburua, guztia,



noski, argazkilaritzaren ikuspuntutik eta bi urte egin nituen. Oso harreman onak egin nituen han eta oso urte aberasgarriak izan ziren. EEBBetan argazkientzako materiala askoz merkeagoa da eta horrek argazkietan aplikatu nahi nuen teknika berria erraztu egin zidan. Erakusketa batzuk egin nituen eta nire teknika berriak sekulako arrakasta izan zuen: argazki guztiak saldu nituen. Gainera, badakit nire teknika hango argazkilari batzuri erakutsi eta aplikatzen ari direla.

— Nola definitu daitezke zure teknika? Zertan datza?

— "Teknika mixtoa" deitzen zaio. Emulsioa papel

berezi batean aplikatu behar da, eskuz egindako papel batean. Emulsioa oraindik heze dagoenean, kolorea sartzten diot argazkiari, hau da, argazkia manipulatu egiten dut eta argazki koloreatua izaten da emaitza. Kontu handiz ibili behar izaten dut kolorea sartzeko orduan, argazkia gehiegi aldatzen bada, "abstraktoa" izateko arriskua dago eta.


— Zure argazki horiek saldu egiten dituzu?

— Bai. Satisfazio handiena EEBBetan saldu nuenean izan zen, batek 8 bat lan erosi zizkidan eta gainera Euskal Herriko gaiak ziren. Batzutan pena ematen dit

saltzeak, baina dirua ere ez dator txarto. Bestalde, kafe-tegi eta bainuetxeetan ere jarri ditut nire lanak, batez ere jendea esnatzeko edo probokatzeko, hau da, teknika berria ezagutu eta kuriositatea senti dezaten. Inpresio hona jaso dut hemen baina EEBBetakoa hobea izan da.

— Zer lan ipini duzu Gasteizko erakusketan?

— "Europa Gizartetxean" jarriko dut erakusketa. Bertako zuzendariak nire argazkiekin erakusketa egin nahi zuela esan zidan eta ondo iruditu zitzaidan. EEBBetako "Cowboy"en argazkiak erakutsiko ditut, baita Lantz-eko ihauterietako argazkiak ere, eta baita Euskal Herriko pertsonaia intelektualek erretratu batzuk ere, Oteizarena adibidez. Dena dela, kritika pertsonal bat egiteko aprobeztatuko dut elkarriketa hau: argazkilari asko Indiara edo Perura joaten da argazkiak egitera eta gero salaz sala euren erakusketarekin ibiltzen dira. Argazkilari horien helburua, jendeak Indian edo Perun egon direla jakitea da baina argazkiak ikusi eta gero, oso balore artistiko eskaxa dutela ikusten dut nik: gosez hiltzen ari den ume bati argazki bat ateratzea ez da beste munduko ezer, beraz, nire helburua ez da ahalik eta erakusketa gehien egitea, ondo pentsatutako argazkiak behar den momentuan erakustea baizik.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxe: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

ICTE jardunaldiak urtarrilean

Orkatz eta Gaztetxearen merkadiloa

Benetan merkadilo berezi eta bitxia izan da Orkatz Skaut Taldeak eta Gaztetxeak elkarlanean antolatu dutena. Ezagutzera eman nahi zutela eta antolatu zuten merkadiloa larunbatera arte egongo da zabalik.

Merkadilo horretan denetarik jarri dute salgai: Jostailu zaharrak, erropak, bitxiak, liburuak, karterak, diskak, kasetak, panpinak... mundu bat! Gainera, salneurri ezinhobean. Nondik atera duten horrenbeste gauza? Norbere etxeko sotanoan aurkitutako gauzak bildu eta joan den asteburuan Frantziskotarren lokalean egokitu zuten merkadilo hau. Astelehenetik aurrera, berriz, leku hotza izan arren, kalistrotetan egon dira. Gainera, merkadiloak arrakasta izugarria izan duela esan behar da: bi egunetan 100.000 pta batu dute.

Maketarentzako dirulaguntza

Joan den asteleheneko gobernu batzordean, "Mad Shadows" rock-taldeari 34.500 pta dirulaguntza ematea onartu zen. Maketa grabatzeko erabiliko du taldeak diru hori.



Herriko jubilatuen egoeraz hainbat hitzaldi izango da urtarriletik aurrera.

ICTE hitzaldi-eztabaida saio eta jardunaldi sorta bat egingo du urtarriletik aurrera. Arrasateko Adinekoen Kultur Programa izango da.

Horren barruan, Euskal gizartean adinekoak zer egoera, adinekoek gizartean duten partaidetza, mendia topagune moduan ikusita,

Deba Garaia ezagutzea eta Musika Euskal herrian izango dira jorratuko diren gaiak. Gai horien barruan izango diren hitzaldi eta eztabaida saioetan Arrasateko Udaleko teknikariek, Zaharren Egoitzekoko ordezkariak eta arlo bakoitzean herrian ezagunak diren

personek hartuko dute parte.

Programaren aurkezpena Errege Egunean egingo da eta urtarrilaren hasieratik bertatik hasiko dira lehen hitzaldiak. Egitarauaren arabera, urtarrila, otsaila, martxoa eta apirila bitartean egingo dira ekintza guztiak.

"Te Deuma" a Arrasaten

Gaur bertan gaueko 8.30etan Amaia Antzokian, Goikobaluk, Gorosarik, Zumarragako Goi-Argik eta Bergarako Orfeoia, Hector Berlioz-en "Te Deum" a abestuko dute Hendaiaiko Orkestrako musikariak lagunduta. Aipatutako orkestrako zuzendariak, René Zugarramurdik zuzenduko ditu abesbatza eta orkestra. Guztira 180 ahots izango

dira eta gutxigorabehera ordubeteko iraupena duen obra zoragarria eskainiko dute. Zazpi zatitan eta 8 ahotsetan abestuko dute eta joan den larunbatean Bergaran izan zuen arrakasta ikusi eta gero, galdu ezinezko emanaldia dela aipatu behar da. Sarrerak 1500 ptan daude salgai Mendi tabernan; dena dela, sarreran bertan ere erosi ahal izango dira.

**TXOKO
TABERNA**

*Cure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak*



LORATEGI "BAR"

Iturriotz, 7 **ARRASATE**
Tfnoa: 79 04 67



1.925ean Ospital zaharreko ikasleak

L

a Merced ikastetxean ibili ziren neska guzti hauek, eta 1925eko ikasturtearen amaieran, azken egunean diploma banaketa egin eta gero atera zieten erretratu hau. Eskolako jardinean zeuden.

Goitik ezkerretik hasita,

nagusienak eta egun hartan saria jaso zutenak: **Teodora Mondragon, Klara Bere-zibar, Rosalia Castellanos, Elisa Guijarro, Margarita Iñurriagarro, Angelina Astaburuaga, Luciana Etxebarria, Juliana Arabaolaza, Zezilia Arregi, Teresa Arregi, Sabina Letona, Dolores Heriz, Segunda Lejarreta, Jua-kina Palacios, Elisa Uri-be, Maria Urbana Juldain,**

Carmen Balerdi, Remedios Mendizabal, Victoria Pol, Maritxu Lasagabaster, Isabel Otadui, Dolores Gordobil, Asuncion Balanzategi, Margarita Pagoaga, Juanita Mendiartx, Amparo Trincado, Juanita Kortabarria, Resu Letona, Margarita Zubillaga, M. Cruz Velez de Mendizabal, Frantziska Velez de Mendizabal, Marcela Arregi,

Juliana Arrizabalaga, Norberta Bolinaga eta Isabel Garcia.

Kurtso amaierako ekitaldian zehar herriko agintariak izaten ziren eta ikasleen saioaren ondoren, hitz batzuk esaten zizkien alkateak. Sasoi hartako alkateak ez zekien nonbait gazteleraz oso ondo eta asmorik onenarekin grazia handiz esan ei zien neskatilei: "... que sean ustedes humildas y obedientas".

ESKIÑA
TABERNA
 Gaupasa on denontzat
Olarte, 25

CRISTINA GARCIANDIA MUGICA
Dermatologia • Benereologia
Medikuntza • Kirurgia
 ASISTENCIA SEGUROS LAGUN-ARO
 SAN MARTIN OSASUNDEGIA
 Ramon M^a Lili, 2 Gral. eskuma BERGARA ☎: 76 59 39

•ARTEA•
 Eskulanak eta lientzoak
 ENMARKAZIOAK
 Laminak, Izpiluak,
 Margoak
 Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
 ARRASATE



Gure 10. urteurrenean denda berriaren irekiera adierazi nahi
dizuegu, Arrasateko Iturriotz kaleko 33an.

Pozik hartuko zaituztegu bertan.

Orain zuzundik gertuago


Iturriotz, 33 ARRASATE

• AIPUA •

“Edozein emakumeri gustatuko litzaioke gizonetzko bati leial izatea. Gizon hori aurkitzea da saila”

MARLENE DIETRICH

• JEROGLIFIKOA •



Non egon zinen asteburuan?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8			9			
10			11		12	
13						
14					15	
16				17		
18						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Poz handia. 8. Gaixo. 9. Diti. 10. Zivojevik, Mondrako entrenatzailea. 12. Latinezko esaldietan erabiltzen da. 13. Produktu. 14. Pastel handia. 15. Gironako ibilgailuetan. 16. Kanpo. 17. Kontzientzia eragotzleen Mugimendua. 18. Zerbaiten barruko alde.

Bertikalak 1. Egiaz, ez txantxetan. 2. Orekan jarri. 3. Bideska. 4. Egiteko dagoen lana. 5. Atzizkia. 6. (Ald.) Egiazale. 7. (Ald.) Hornidura. 11. Doilor. 17. KRISTOREN ONDORENen laburdura.

• HOROSKOPOA •

Aries Zure anaiarekin bakea egin beharko duzu, bestela ezingo duzue gabonik ospatu.

Taurus Zergatik iluntzen zaizu aurpegia? Olentzero dirudizu.

Gemini Zu dendari ona izango zinateke, erraz konbentzitzen duzu jendea.

Cancer Konturatu zara gero eta umore txarragoa duzuna?

Leo Santamasetan egin zenuenak ez du izenik. Horixe bakarrik falta zitzazun!

Virgo Herrian ez duzu ospe onik, baina inbidia ere badizute.

Libra Amari zartagina oparitu? Aizu, nahikoa da!

Scorpio Arin-arina dantzatzen ikasteko gorputza ere arin-arin izan behar da.

Sagitaris Ez jan turroi gogorrik, bestela haginaren bat jausiko zaizu.

Capricorn Neka-neka eginda bukatzen duzu astebukaera, eta jakina, astean zehar ezin ezer egin.

Aquarius Akerrak bezala ibiltzen zara; noiz finduko zara?

Piscis Eguzkilorea baino politagoa zara. Ederra benetan.

ZORIONA

-Erosi, ama, jostailu hori, horretxekin ni bai ase!
-A ze beharrak zure beharrak!
Beti janda beti gose.

-Bideojoko bat behar dut eta telebista neure gelan.
-Gauzei lotuta bizi den orok ezin lezake egin hegan.

-Ordenagailu bat behar dut eta azken orduko robota.
-Askatasunak ez du sokarik, eta horra hor, zu, sokaz soka.

-Kitarratxo bat ere behar dut ikasteko rock and rolla.
-Gure kitarren hariak ere bihur litezke kaiola.

-Izar bat nahi dut, mundua nahi dut: erosi, mesedez, ama!
-Nahiaren nahia bilakatzen da zamaren gaineko zama.

Hau nahi dut eta bestea nahi dut, ume guztien leloa: ez ote dugu horrela handitzen zoritxarraren zuloa?


Irigoien. J. M. Metak eta kometak

San Frantzisko Xabier



“JOSTAILU
GHEGEGI BAINO,
HOBE PARE BAT
JOLASKIDE”

• OLENTZEROREN GOMENDIOA •



Bihar gauean etorriko da Arrasateko etxeetara ere Olentzero, eta etorrera hori presatzeko gomendioa eskatu diogu: "Karta luzea egin didatenentzat, gehiegi ez espero izatea, poltsikoa ez daukat hain bero eta. Idatzi ez didatenentzat, eurekin ere akordatuko naizela, merezi badute". Umeekin ere akordatu nahi izan du Olentzerok: "Txoropiori eman laztan bana karta entregatzerakoan. Gauera, zapatak ondo garbitu ohera joan aurretik. A! eta ekarritako jostailuak ez utzi albora bigarren egunean".

• KOMIKIA •



Pixtu

• PROGRAMAZIOA •

**26 Astelehena**

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

27 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

28 Astezkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan.

29 Osteguna

13.30tan
Pareak Jokuan (errep.)
20.30etan
Ibilixan Dabilena.
Gonbidatuak: Jon Arretxe:
Txina eta Afrikatik zehar bizikletan bidaia egin duen bizkaitarrak, makina bat gauza dauka kontatzeko.
Erreportaia: Puenting-a.

30 Ostirala

13.30etan
Ibilixan Dabilena (errep.)
19.15etan
Marrazki Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete Xabier
Ibarzabalek aurkeztua.
22.00etan
Marrazki Bizidunak

• SOLUZIOAK •

Memesa
79 42 22

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Urbasan.
Jeroifitikoak:
Egitali. 7. Emendio. KO.
tu. 3. Zidor. 4. Ataza. 5. Ri. 6.
Bertikalak: 1. Benetan. 2. Oreka.
17. KEM. 18. Nukleo.
Ekotxin. 14. Tarta. 15. Ge. 16. Ar.
9. Titit. 10. Nedza. 12. Ad. 13.
Horizontalak: 1. Bozkario. 8. Eri.

Etxebizitzak

• **Playa de la Rotan (Torrevieja)** etxebizitza polita salgai. 43 m². Hondartzatik oso hurbil. Tfnoa: 71 63 79.

Etxebizitza alokagai Erdiko kalean, 4-5 laguentzat. Tfnoa: 77 03 38 / 79 18 03.

• **Neska bat edo bi behar dira Arrasaten etxebizitza betetzeko.** Dei egin Gasteizko tfno honetara: 945-22 34 97. Edurne.

• **Neska behar da** Donostiako erdialdean otsailetik ekainera etxebizitza osatzeko. 17.500 hilean. Tfnoa: 79 26 93.

• **"Pensión Ederra" alokagai Iturriotz kalean.** Tfnoa: 79 12 07. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

• **Arrasaten etxebizitza osatzeko neska behar dugu.** Hilean 9.500 pta. Tfnoa: 79 70 77. Aintzane.

• **Pisua behar dut alokagai.** 50.000 pta arte ordaintzeko prest. Tfnoa: 79 44 96.

• **Etxea saltzen da,** Okendo 1 -5.A. Tfnoa: 79 94 36. Arratsaldeko deitu.

Lana

• **Baxuzko klaseak** ematen ditut. Tfnoa: 79 78 65. (Aitor).

• **Haurrak zaintzeko** edo etxea garbitzeko andra euskalduna eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.

• **20 urteko gaztea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 44 86.

• **Haurrak zaintzeko edo etxea egiteko** esperientziadun neska eskaintzen da. Esperientzia dut, eta informea ere bai. Tfnoa: 79 76 27 (Maite). Dei egin goizeko 9etatik 11etara.

• **Haurrak zaintzeko edo etxea garbitzeko** esperientziadun neska eskaintzen da. Tfnoa 79 73 06 (Ana).

• **Emakumeak etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuke.** Tfnoa: 79 31 58.

• **Software neurria.** Ikastetxeak, akademiak, lanbide liberalak, PYMEak, komertzioak eta tabernak. Tfnoa: 79 54 87. Carlos

• **Gaixo edo/eta adineko pertsonak zaintzen ditut.** Tfnoa: 945-17 07 28. Bautis.

• **Edozein motatako lanak garbira pasatzen ditut ordenagailuz.** Interesatuok deitu 79 77 59 tfnora eta galdetu Fernandogatik.

• **23 urteko neska lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 63 04. Beni.

• **Urtarriletik aurrera 4 hilabeteko ume bat zainduko pertsona euskalduna behar da.** Interesatuok dei egin 79 92 88 tfnora.

• **Umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko** emakume euskalduna gertu. Tfnoa: 79 56 32. Txaro.

• **Jatetxean zerbitzari lan egiteko nuke.** Tfnoa: 79 56 32. Txaro.

• **Neska euskaldun eta langilea eskaintzen da** astean zehar etxeko lanak egin edo haurrak zainduko. Deitu 76 62 60 tfnora eta galdetu Aloñagatik.

• **Etxeko garbitasunak egin, haurrak zaindu edo dendari lanak egiteko** nituzke. Tfnoa: 79 91 30.

• **Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu.** OHoko maila guztiak. Dei egin 79 41 37 tfnora 9,30etatik aurrera.

• **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira.** Profesionalitatea eta esperientzia zentro akademikoan. Tfnoa: 79 28 98.

• **Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 77 94. M^a Eugenia.

• **Leiapaindegiko laguntzailea eskaintzen da** FPII eta hobekuntzarekin. Tfnoa: 79 39 15.

Salerosketak

• **AMSTRAD CPC 464 salgai.** Joku asko ditu. Tfnoa: 79 16 19. Valen.

• **Uribarri etorbidean garajea irekia salgai edo alokagai.** Tfnoa: 79 85 24.

• **Negozioa martxan duen merkatal baxua salgai** leku "bikainean" Zigarrolan. Argibide pertsonalak. Tfnoa: 77 13 02. Rosa.

• **"SALBA" markako labea eta fermentadorea salgai** prezio interesgarrian. Tfnoak: 77 00 91 eta 79 23 58. Rosa.

• **"STARFORCE" kitarra salgai,** egoera onean eta merke. Harremanetarako dei egin 79 38 58 tfnora. Aitor.

• **Erlajaziorako biozirkuitoak salgai.** 3.500pzta gehi igorpen gastuak. Tfnoa: 79 73 82. Informazioa nahi baduzu, bialdu sobrea eta 29 ptako zigilu bi helbide honetasra: E. Gonzalez. Dr. Bañez, 15. 2. ezk.

• **R-14 markako kotxea salgai.** Matricula SS-P. 95ean ITV atarata. Egoera onean. Interesatuok dei egin 79 58 82 tfnora. Mikel.

• **Garajea alokagai.** Roneon. Tfnoa: 79 19 64.

• **Garaje itxia alokatzen da** Maala kalean. Tfnoa: 79 42 13.

Denetarik

• **Urrezko eratzuna galdu zituztaren** abenduaren 13an Arrasaten. eratzunean "Nerea" dago idatzita. Aurkitzen baduzu, 79 42 70 tfnora deitu, mesedez.

• **Egunero Gasteiza joan beharra daukat goizeko 8etarako.** Nahi baduzu nirekin etorri (gastuak erdibana) hor doa nire tfnoa: 79 80 91

Aste Gazte

Bekak

• Euskal Herriko unibertsitateko ikasleei zuzendutako garraio bekak, unibertsitateko joateko egunero 25 kilometrotik gora egin behar dutenentzat. Epea: urtarrilak 18.

• "El Correo" k, bederatzi bekaren deialdia egin du, kazetaritza karrerako azken urtean dauden ikasleei zuzenduak. Epea: abenduak 31.

• "Real Colegio Complutensek", Harvard unibertsitatean edozein gairi buruz gradu-osteko ikasketak zein ikerketak burutzeko bekak

deitu ditu. Lizentziatuei zuzenduak. Epea: urtarrilak 13.

• Atzerrian ikasketak zabaltzeko bekak, Arazoetarako Ministraritzak deiturik, lizentziatuei zuzenduak: a) 95-96 ikasturtea Dinamarkan. Epea: urtarrilak 3. b) 95-96 ikasturtea Turkian. Epea: urtarrilak 25. d) 95-96 ikasturtea Finlandian. Epea: urtarrilak 20. e) 95eko udan, ikasketak Irlandan. Epea: otsailak 1.

Eski Kanpaina (Diputazioa)

• Eski Alpinoa, 15-29 urte bitartekoei zuzendua. Data:

urtarrilak 14-15, 21-22 eta 28-29. Lekuak: Astun/Candanchu. Prezioak: 8.625 pta. Erreserbak: Gazte Bulegoan.

Gazte Txokoak

• Gabonetan bi tailer: grafiti Santamainan eta malabarak Uribarri-Erguinen. Abenduaren 26tik urtarrilaren 4arte, arratsaldeko 4etatik 7etara.


Lehiaketak

• "Espeleok Comic 94" komiki lehiaketa, Espeleok Club Tortosak deiturik. Gaia: espeleologia, kainoi jetsierak... Epea: urtarrilak 16.

• IX. Portugaleta Hiria Komiki Lehiaketa. Euskaraz zein gazteleraz. Epea: urtarrilak 13.

"Bihotzeko memoriak gogorapen txarrak ezabatu eta onak handietsi egingo zituela eta honi esker iragana jasangarri suertatzen zaigula jakiteko gazteegia zen oraindik".

G. GARCIA MARQUEZ
"EL AMOR EN LOS TIEMPOS DEL COLERA"



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Berango



ALTZARIAK



*Sukalde-altzariak
doan izan daitezke*

DeLonghi

Elektragailuak

- ELEKTRAGAILUETAN
MARKA GUZTIAK
- ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ATE
KORRIGARRIEKIN

ERAKUSKETA: Legarre pabilioia, z/g / Gipuzkoa etorbidea ☎: 79 01 92



*Keramika
erakusketa
eta salmenta*

Uribarri Etorbidea, 22
Tfnoak: 79 81 80 - 77 09 59
FAX: 79 81 80



MUGARRI



Gugan jarritako
konfidantzagatik,
eskerrik beroenak!

Ondo pasa
gabonetan!



Urteberri
zoriontsu eta segurua
opa dizuegu.



Gogoratu!
Familia osoa Mugarrin
aurkituko gaituzue.

